

uk

81. zenbakia / 2005 maiatzak 22



GETXO'05

XXII. ESKULANGINTZA AZOKA
FERIA DE ARTESANÍA

MAIATZA 27-28-29 MAYO



Carpa Plaza Estación (Areeta) / 11:00-14:30 + 17:00-21:00
sarrera / entrada: 2,50 € (2 € jubilatuentzat edo gazte txartela aurkeztuz /
2 € para jubilados o presentando Gazte Txartela)

«Jan bizitzeko, ez bizi jateko» Euskal esaera zaharra

Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Sopolako ikastetxean. Asier Mentxaka.
6. PLAZA. Leihatila, Maddi Albizu. Ezker Batua. Photoshop.
7. LEHEN ETA ORAIN. Aixerrota, 1890-2005.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
9. ERRETRATUA. Amaia Ezkerra, A. M.
10. HERRIZ HERRI. Getxo 10. Leioa 14. Erandio 16. Sopela 18. Berango 20. Gainerako herriak 21.
23. AGENDA.

SAKONEAN

24. ALBUMA. Basalbo baserria, Asier Mentxaka.
26. ERREPORTAJEA. Gorlizko hondartza *berria*, Unai Brea.
28. ARGAZKIA. Olatu erraldoia Plentzian, Alfredo Aldai.
30. BERBETAN. Tzibi Juaristi, U. B.
34. FOTOGRAFIA. Igor Ortegaren argazkiak.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Oskar Fernandez zutabea. Zineklubaren denboraldia.
43. MUSIKA. Canal Blues taldea. Diskoen erreseinak.
44. LIBURUAK. Klasikoak sarean. Liburuaren erreseinak.
45. KIROLA. Kirik kooperatiba.

EUSKARAZ

46. ELKARRIZKETA. Gaizka Escudero, Unai Brea.
47. AKABUKO PUNTE. Gure euskara, Xabi Bilbaoren eskutik.

AMAITZEKO

48. JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderoaren errezeta eta Itsaso Aranaren ardoaren gaineko lezioa. Non jan? Esaterako, Leioako Urrixa jatetxean.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Madre del Divino Pastor ikastetxea, 1945.
54. AITORMENAK. Virginia Imaz, Jon Urresti.

Azaleko argazkia: Igor Ortega



30 Tzibi Juaristi

Berbetan

Athletic taldeko kapitaina da futbol jokalaria getxoztar hau. Jakina denez, duela gutxi erreskan irabazitako hirugarren ligako trofeoa jaso du.



46 Gaizka Escudero Pipi



45 Canal Blues



32 Igor Ortegarren argazkiak



54 Virginia Imaz



21 Araldi elkartea



- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tif: 94.464.23.64 / 94.464.33.07
e-mail: leioa@ikastola.net • www.ikastola.net/ikasweb/leioa

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta

HELBIBIDEA: Amezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171
Tel: 94 491 13 37 / Fax: 94 491 58 31

ZUZENDARIA: Jokin Aspuru

ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Aritz Bregel, Amaia Arriaga

FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka

TESTUEN ORRAZKETA: Jon Etxebarria

KOLABORATZAILEAK: Unai Brea, Jon Urresti, Bittor Egumio, Itxaso Arana, Gaizka Escudero, Xabier Bilbao, Esti Ezkerra, Oskar Fernández, Unai Amezaga, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkarteak

MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vázquez

PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)

KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta

FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF

LEGE GORDAILUA: BI-1878-00

ISSN: 1576-6799

Osorik edo zaliz, makinaz zein informatikaz kopiatzea, baimen barik, erabat galarazirik dago

© Boluntzarreta

Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarten Topaguneko partaidea da

**Aldizkari honek Bizarra Lepoan Euskara Elkartearen dirulaguntza jasotzen du**
Itxasgane Etxea / Karitatea 1
94 491 43 57 / 48990 Algorta

**Aldizkari honek Getxoko Udalaren dirulaguntza jaso du**

**Leioako Udala**
Aldizkari honek Leioako Udaleko Euskara Zerbitzuko dirulaguntza jaso du

**Erandioko Udala**
Aldizkari honek Erandioko Udalaren dirulaguntza jasotzen du

**Bizkaiko Foru Aldundia**
Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du

**EROSKI FUNDAZIOA**
Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du

**uk aldizkaria etxean jaso nahi baduzu**
94 491 13 37
uk@aldizkaria.biz

gugeu

Lasesarrera

Athleticek kopako finalerako txartela galdu eta ondorengo egunean suertatu zaigu testu hau idaztea. Eta jakina baztertu ezinezko gaia da. Guk alde aurretik gertatuko zenaren susmoa geneukan, Athletic ezer bada sorpresa kutxa handia delako. Hala ere, gabarra itsasoratzeko itxaropena bageneukala aitortu nahi dugu. Baina onerako zein txarrerako hau da gure Athletic.

Baina izan gaitezen baikorrek, Athletic finalera heldu ez izanak bere alde onak ere badituelako, esaterako, finalak eragingo litzuzkeen gastuek ez dituzte zaletuen sakelak hustuko, bihotzekoak gutxiago izango dira gurean, sarritan ahaztuta daukagun Nafarroako talde euskaldun batek badauka kopa eskuratzeko aukera...

Gainera Athletic gizonen lehenengo taldea baino askoz gehiago ei da: filosofia, batzuentzako bizitzeko modua... Eta nola ez, sarritan ahazten badugu ere, emakumeen taldea klubaren parte da. Gainera, azken urteotan tituluak ekarri dituen talde bakarra dugu: hiru liga irabazi ditu jarraian! Talde honetan kapitain lanetan getxotzar bi ibili dira: Nerea Onaindia eta *Tzibi* Juaristi. Azken honegaz egon gara berbetan eta horrela emakume hauen balentriaz hobeto jabetu gara. Izan ere, Athleticeko andrekin musu-truk jokatzeko dute, eta bestelako beharretatik ateratzen dute bizitzeko. Ezin ukatuzkoa da andrazkoen meritua gizonen bano handiagoa dela.

Amaitzeko aholku bat: poztasun malkoak nahiago dituenak San Mamesera baino Lasesarrera joan dadila hamabostean behin. 4

UK-ko lantaldea

gutunak

Atal honetan irakurleen iritziak, eskaerak, gutunak argitaratu nahi ditugu. Zuen testuak bidaltzeko: uk@aldizkaria.biz • Faxa: 94 491 58 31

matematika aplikatua



Goizero irakurri > **berria**



SOPELANA, 2005eko MAIATZA

Kultur aniztasuna / Eusko Jaurlaritzaren hezkuntza lehenengo artean Eskola Inklusiboa dago, kultur arteko hezkuntzari garrantzia ematen diona. Horren albotik, Sopelanako Institutuak kulturen arteko ekintza ezberdinak antolatu zituen maiatza hasieran: dantza eta kanta afrikarrak; Brasilgo perkusioa; dantza latinoak; Arabia, Kolonbia, eta bertoko gastronomia; hitzaldiak, etab. Kultur arteko harremanen alde argazkiko gaztea beste ahaleginduko bagina ez litzateke muga baztertzailerik egongo. m / Argazkia: **Asier Mentxaka**

Leihatila

> Maddi Albizu

Duintasunez

Adinean gora egin ahala txikitan buruhausterik ematen ez diguten kontuez kezkatzen hasi ohi gara. Buruhaustetan buruhausteen, zalantzarik gabe, heriotza dugu. Heriotza oso-oso hurbiletik ikusi dut egunotan, heriotzaren eskutik helduta zihoala ikusi dudana oso maite nuen norbait zelako. Betiko gogoratuko dut azken aldiz ikusi nueneko bere begirada distiratsua, "maite zaituztet" zioen hitzik ere esan gabe, era berean maitatua sentitzen denaren lasaitasunean. Hiltzeko oso era duina izan du. Neuk ere niretzat nahiko nukkeenaren modukoa. Hiltzeko unearen duintasuna, ordea, ez datza azken ordu edo minutuetako sufrimendu edo sufrimendu ezan, jaiotzetik hil arteko tarte zabalean zehar bizi garen eran baizik. Horixe ikasi dut nik egunotan. Heriotza duina izateko bizi duina ere behar dela. Eskerrik asko eta agur, amama. 4

IRITZIA

Zer behar da herri honek bakea lortzeko? Galdera hau luzatzen ari gatzazkio eskualdeko hainbat laguni. Oraingoan Jose Vicente Ojinaga Ojiren txanda da.

Zer behar da herri honek bakea lortzeko?

Zalantza barik Euskal Herrian une itxaropentsuak bizitzen gabiltza, eta itxaropentsuak diot honenbeste nahi izan dugun bakea gutxitan eduki dugulako gugandik honen hurbil. Hala ere, bakea ez da berez helduko, bakea egunero eraikitzen da, gure ahaleginen eta jarrerren fruitua da. Zinez, hitz egiteko beharrean sinesten dut, elkarguneak bilatzean, etsaiaren azalean ipini eta bere jarrerren zergatia ulertzen saiatzean. Baina batez ere, bakea zera da: jokabide kolektibo kode batekin denok hartutako konpromisoa. Gatazkak konpontzeko biolentzia eza eta elkarrizketaren aldeko apustua dira nire iritziz etorkizunez betetako lan tresnak. Gizarte modernook,-euskal gizartea

bezalakoak- horrela jokatu behar dugu.

Eta, bakea Euskal Herrian eman dadin beharrezkoa da hitz egitea, entzutea, elkarrizketan jardutea eta inongo salbuespen edota beto barik denon artean adostea. Gainera, akordio horrek inklusiboa izan behar du, jendea

«Bakea lortzeko beharrezkoa da hitz egitea eta denon artean salbuespen edo beto barik adostea»

batuko duena, den-denok batuko gaituena, eta era berean, ezinbestekoa iruditzen zait akordio horrek herriaren erabaki filtroa pasatzea. Herria da protagonista, eta izaten segitu behar du, akordioa ona ala txarra den erabakitzeko ahalmena eduki behar du, gizartearen beharrei erantzuten dion edo ez erabakitzeko ahalmena, eta gobernuak bakea gure bizitzara ekartzeko keinuak egin behar dituen edo ez erabakitzeko ahalmena.

Horrela baino ez da posible izango bakea, eta zergatik ez aipatu; gure lur honetan indarkeria guztiak behin betiko desagertzen diren egunean, ezkerrek eta bere borrokek indarkeriaren existentziak eta bere nonahikotasunak utzi ez dieten protagonismoa edukiko dute. 4

Jose Vicente Ojinaga Bilbao Oji
(Ezker Batuako zinegotzia Sopelako Udalean)

* Erredakzioan itzulia

[lehen]



EUSKAL MUSEOA, BILBO

[orain]



ASIER MENTXAKA

photoshop > Barrikako kultur etxe berria



Irudiak eta manipulazioa: A. M.

Iraganez doa denbora* beti / AIXERROTA 1890-2005

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

ekimena > bertsolari gaztetxoan V. eguna - III. euskal eguna

Maiatzaren 12an goizeko 10 eta erdietan, Algortako Getxo Antzokian BERTSOLARI GAZTETXOEN V. EGUNA egin zen, III. Euskal Egunaren barruan. Getxoko bost ikastetxetako bertsolaritza-taldeak batu ziren bertan, 200 ume inguru, eta ordu bete eta erdiz zalaparta handiko uneak eta isilune erabatekoak tartekatu ziren, bertsoak helburu. Ekitaldi hau ikasturtean zehar Algortako Bertsolari Eskola ALBEk Getxoko Udalaren bitartez Getxoko ikastetxeetan ematen dituen bertsolaritza-eskolen amaierako jaialdia da, eta dagoeneko ondo sustraitutako plaza da, Getxoko ume bertsozaleek irrikaz itxaroten dutena beren dohainak erakutsi eta bertso-giroaz gozatzeko. ^m



Getxon bertsolaritza badu historiari, badu orainaldi mamitsurik, baina batez ere, etorkizuna du. Antzokian bildu ziren 200 ikasleek argi erakutsi zuten ez diotela beldurrik mikrofonoari eta plazarako jauzia emateko gogotsu dabiltzala. Ekimen honen atzean lan handia dago, baina emaitzak merezi du, batere dudarik gabe

kale izendegia > Ezekiel Agirre



Erromo aldean kalea daukan arren, Maximo Agirrerren seme hau Areetako bultzatzaileetako bat dugu. Eduardo anaiagaz batera, Ezekiel Agirrek eta Labrotxa merkataria bilbotarrak “Establecimiento de Baños del Mar Bilbaíno” bainuetxea eraikitzeke agindua eman zuten 1868an, Bilboko burgesiaren aisialdi beharrak asetzeko uda garaian. Dakigunez, bainuetxeak 200 lagun har zitzakeen, gehienak osasun makalagaz eta ibiltzeko zailtasunakaz. Bainuak hartzeko sasoia uztailearen 1ean hasi ohi zen, eta iraileko 30ean, berriz, amaitu. 1880tik 1898ra bitartean ezagutu zituen urterik oparoenak, baina Areetako hondartza desagertzen zihonan heinean gainbehera etorri zitzaion. 1903an Abrako Itsas-Elkarteak hartu zuen bainuetxea. Ezekiel Agirrek Bilbo-Areeta trenbidearen eraikuntza ere kudeatu zuen, eta bere Administrazio-Kontseiluko lehenengo presidentea izan zen. 1888ko otsailaren 5ean hil zen. ^m

Argazkian, Ezekiel Agirre kalea



La Gaceta del Norte, Hierro, La Hoja del Lunes... Hamaika egunkari ezagutu eta desagertzen ikusi ditu Amaiak. Egin izan da gehien maite izan duena

Amaia Ezkerra > prentsa banatzailea

Egunero goizaldeko 3:30ean jaikitzen da, lauzpabost orduz lo egin ostean; *“ohituta nago, beste gauzarik ez dudalako ezagutu”*. Izan ere, Amaia Ezkerra (Algorta, 1958) zortzi urteagaz hasi zen egunkariak kalean saltzen, *“oraindik gogoratzen dut amamak adreilu erreak ekartzen zituenean gure oinetarako kaleko hotza kentzeko”*. Gabi nebagaz eta Begotxu ahizpagaz batera, familiaren tradizioari (eta negozioari) eusten dio. *“Hirugarren belaunaldia gara. Aitite-amamak orain dela 80 urte baino gehiago hasi zirenean, Getxoko egunkari saltzaile bakarrak ziren ia; gaur egun, ordea, 14 bat kiosko daude Algortan bakarrik”*. Ezkerratarrak oso ezagunak dira algortar peto-petoean artean, *“adinekoak oraindik ere Los periodistas goitzenagaz ezagutzen gaituzte”*. Udalak derrigortuta, prentsa kalean saltzeari utzi egin behar izan zioten, eta 1980an Amaiaren gurasoek “Egunkariak” kioskoa paratu zuten Algortako Etorbidean. Gaur egun, ez dabil egunkariak saltzen, banatzen baizik: 300 bat ia 200 etxetara furgonetaz. *“Familian euskarazko prentsa alde borrokatu dugu”*. Horregatik, pena handia hartu zuen Egunkaria zarratu zutenean. *“Gainera, gertutik bizi izan nuen, nire anaiaren alaba bertan beharrean zegoelako”*. ^m Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Jon Urresti**

Artxiboko altxor getxoztarrak

Udal Artxibategia Udaltzako Liburuak **digitalizatzen** dabil eta egitekoa hiru urte barru edo amaitzea espero dute; dagoeneko 50 urtetik gorako espedienteak **sarean daude kontsultagai**

Udal Artxibategia Getxoko udaletxeen barruan egon da beti, lehenengo San Nikolas parrokiaren alboko udaletxe zaharrea eta 1926tik hona oraingo eraikinean. Gaur egun 90.000 agiri baino gehiago batzen ditu eta kopurua gelditu barik hazten doa. Udaltzako Liburuak digitalizatze lanetan dabilza orain eta Kudeaketa Kalitatearen ISO ziurtagiria lortu berri dute.



Argazkian Eloie San Jose, Udaltzako artxibategiko arduraraduna

Udalak 1743tik gaur arte ekoiztutako eta jasotako agiriak, argazkiak edota planoak osatzen dute Udaltzako Agiritegiko funtsa. Dokumenturik zaharrenetakoak 1743ko Santa Clara eta Portugaleteko Santa Maria komentuek Getxoko Udaltzako mailegu eskaerak dira. Horrez gain, honako dokumentuak aurki daitezke: Akten Liburuak 1812tik hona, Dekretuak 1973tik, Kontuak 1873tik, Hauteskundeetako espedienteak 1788tik, Herritarren patrioiak 1857tik, Errolda 1859tik, Bandoak 1845etik, Ordenantzak 1840tik gaurdaino... Orain Udaltzako Liburuak digitalizatzen dabilza: 1984-2000 urte bitartekoa eginda dago, 1965-84 tartean dabilza orain, eta azkeneko 2000tik aurrerakoa utziko dute. 3 urte barru edo lana amaituta egotea espero dute arduradunek. Dena sarean kontsultagai jartzea izango litzateke geroko egitekoa eta dagoeneko 50 urtetik gorako espedienteak sarean daude.

Harribitxiak eta hutsuneak

Lau artxibozain dabilza beharrea Artxibategian eta arduradun Eloie San Joseren ustez, *“interesgarriena, eta horregatik gabiltza hori digitalizatzen orain, Udaltzako Liburuak dira: lehenengo Liburuak*

«Antzinako jaien argazkiak, eta Bizkaiko Zubiko edo Smithen planoak daude»

udalerriko bizimodu eta gertakarien isla ziren, akordio txikiak ere Udaltzatik pasatzen zirelako. Gero, Gerra Zibileko dokumentazio asko dago, herritarren izen-abizenak eta guzti, eta hori ere ordua helitzen denean katalogatu beharko da». Artxibategian hutsune handirik dagoen itaunduta, ezetz diosku San Josek, alabaina, *“Agirre Getxoko alkate zeneko dokumentazio askorik ez dago, ez dakigu zerga-*

tik, baina sasoi garrantzitsu haren zenbait dokumentazio falta da”. Bestalde, Getxoko Udaltzako Salamancako Artxibo Historikoari udalerriko dokumentu batzuk itzultzeko ere eskatu berri dio. Amaitzeko, Artxibo Fotografikoa eta hainbat plano interesgarri ere gordetzen ditu Artxibategiak: 1800-1950 jaien argazkiak, Missen lehiaketa eta karrozak; edota Bizkaiko Zubiaren zein Smith arkitekto ezagunaren planoak. m

Jakingarri

- 90.000 agiri baino gehiago
- www.irargi.org gunean 50 urtetik gorako agiriak kontsulta daitezke.
- Digitalizazio lanak orain Udaltzako Liburuak bakarrik digitalizatuko dira.
- Artxibo Fotografikoa eta plano interesgarriak ere aurki daitezke.

Bai, esan kanpaina

Udalarreriko hartu-emanak euskaraz bultzatzeko



Argotako Zabala kaleko Hiritarren Herrerako Bulegoa

Udaleko zerbitzuen eta herritarren artean euskara gehigo erabiltzeko *Bai, esan* kanpaina laster ipiniko du martxan Euskara Zerbitzuak. Ekinaldia herritarrengana zabaltzeko eta horren berri emateko 35.000 liburuxka banatuko dituzte. Liburuxkak euskarazko 11 orri eta gaztelarazko 5 dauzka. Gaztelarazko aldeak pasadan urtean onartutako Euskararen Erabilera Plana zertan datzan azaltzen du, helburuak zeintzuk diren eta euskara erabiltzera animatzen ditu herritarrak. Euskarazko atalean, oster, adibide praktikoak bidez Udalarekiko hartu-emane-

tan, idatzizkoetan zein ahozkoetan, euskara erabiltzea hain gaxa ez dela erakutsi eta herritarrak horretara animatzen ditu Euskara Zerbitzuak, *“eta bide batez, beldurak eta zalantzak alde batera uztera, eta jakinarazten da euskaraz eskaera egiteagatik ez dela beranduago tramitatuko ezta gutxietsiko ere”*.

Bestalde, Udaltzako barrura begira ere egingo dute kanpainaren aurkezpena, *“bate-tik, herritarrak obiko harremanak izaten dituzten zerbitzuetako langileak ere prest egon daitezten; bestetik, euskararen erabilera barrutik ere sustatzeko asmoagaz”*. m

UDAKO IKASTAROETAN IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK DAGO

Getxo Kirolak-ek uztailean eta abuztuan antolatzen dituen Udako Ikastaroetan izena emateko epea zabalik dago. Ikasketak eta kirola uzartzen dituzten ikastarook 12-14 urte bitarteko gaztetxoei zuzenduta daude. Lehenengo, parte hartu gura dutenek ekainaren 8a baino lehen txartel bat batu beharko dute. Gero, partehartzaileak aukeratzeko zozketa egingo da (ekainak 9). Azkenik, izena emateko epea zabalduko da (ekainak 13, Fadura edo Gobelan). Udaltzako 22.396 euro bideratuko ditu eta ikastarook 27 euro balio du.

426.000 EUROKO LAGUNTZA 59 ELKARTERI

Getxoko Udaltzako urterako diru-laguntzak banatu ditu 59 kultur eta kirol elkarteren artean. 36 kirol elkarterara 337.553 euro bideratu ditu eta 23 kultur elkartere 88.573 euro jasoko dituzte, guztira 426.126 euro. Iazko laguntzen antzekoak dira aurtengoak ere; hala ere, Punta Galea txirindulari elkarterari eta emakumezko taldeak sortu dituzten elkarterei zenbateko handiagoa eman zaie. Eta Raspas eta Argotako arrautz taldeek Abrako kirol Portuaren elkarteraren bitartez jasoko dute laguntza.

ETXE SORGINDUAREN ZAHARBERRITZEA

Basagoiti etorbidean dagoen Etxe Sorgindua zaharberritzeko milioi bat euro baino gehiago bideratzeko asmoa dauka Getxoko Udaltzako. 1898-1901 bitartean F. C. Menchak Jose Olozagarentzat eraikitako etxeak gaur egun Euskara Zerbitzuko, Komunikazioko edota Kalitateko udal bulegoak hartzen ditu.

GAZTEEN SORMENA ETA EKOIZPEN ARTISTIKOA SUSTATZeko LEHIAKETA

2005

EUSKAL HERRIKO II. GRAFFITI LEHIAKETA



Lehiaketaren finala uztailearen 16an Getxon ospatuko da. Lehiaketaren oinarriak: www.topagunea.org






Graffiti

lehiaketa Getxon

Topagunea Euskara Elkartearen Federazioak antolatzen duen Euskal Herriko II. Graffiti Lehiaketa Getxon egingo da uztailaren 16an. 15 urtetik gorako gazte euskaldunek margoztu gura luketen horma-irudiaren bozetoak aurkezteko epea zabalik dago uztailaren 1era arte. Getxoko Udala, Eusko Jaurlaritza, eta Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundien babesak daukan II. Graffiti Lehiaketa *asteburuetan.com* gazte egitasmoaren barruan dago eta gazteen sormena eta ekoizpen artistikoa sustatu eta gizarteratzea dauzka helburu. Lehiaketak zati bi dauzka: bozetoak aurkezteari dagokiona, eta ostean aditu talde batek hautagaietatik hamar lan aukeratuko ditu eta horiek izango dira uztaileko jaietan Getxoko kaleetako hormetan margoztuko direnak. 1.200 euroko lau sari banatuko dira, horietako bat emakumezko graffitigileei begirakoa. Aurretik gaia librea izango da, iaz legez banaka edo taldeka parte har daiteke eta testurik balego euskaraz izan beharko du. ^m

Informazio gehiago: www.topagunea.org
94 621 51 16



Carlos Terreros > argazkilaria

“Buruak ile adin proiektu daukat”



Carlos Terreros

Carlos Terreros (Algorta, 1972) argazkilaria eta kazetaria skateari lotuta egin du bere ibilbide profesionaleko zati handi bat, eta Uribe Kostako skateboarderren irudiak erakusketa paratuko du laster Satistegi tabernan UK aldizkariaren laguntzaz. Komunikazio Zientzietan lizentziaduna da eta gaur egun esparru horretako Doktoretza prestatzen dabil. Erosion skate aldizkari berezituaren zuzendari ere izan zen.

—Noiz eta zelan sortu zitzaizun argazkilaritzarako zaletasuna?

—Behin nire arrebari bere reflexa ostu nion lagunei erretratu batzuk egiteko, eta hondatu egin nion. Konturatu zenean zera esan zidan: “apurtutako hori zuretzako eta orain berri bat ordaindu beharko didazu”. Gogotik ordaindu nuen kaxoi batean ahaztuta uzteko, eta probetxua ateratzea erabaki nuen. Ostean argazkien bitartez neure barne mundua azalarazteko beharra sortu zitzaidan, eta holan gaur arte.

—Zure ibilbide profesionalean hainbat lekutan ibili zara beharrean, *Erosion* aldiz-

karian esaterako, ezta?

—Herri aldizkariak kolaboratzen hasi zen nuere ibilbide profesionala. El *Correo*-ko erdiko orrialdeetan koloretan erreportaje bat ere argitaratu nuen. Gerora surfeko *Tres60* aldizkariagaz kolaboratzeko aukera sortu zitzaidan, eta aldizkari horretako skateboarding atala zuzentzen amaitu nuen.

“Loriaren trenak herri honetako geltokian skaterak hartzeari aspaldi utzi zion”

Monopatinari begirako *Erosion* aldizkaria jaio zen ondoren, eta bi urtez-edo buru eta aitzur horretan jardun nuen. Baina munduak ez dio birak emateari uzten eta azkenean arrazoi desberdinengatik, pertsonalak zein profesionalak, *Erosion* uztea erabaki nuen. Orain hamaika saltsatan sartuta nago: Bartzelonako tipo bat ezagutu dut artistentzako argazkien inpresioak egiten diharduena, eta berak nire lanik pertsonalaren zati bat doan kopiatzeko asmoa agertu du. Beraz, horregaz lotuta bi erakusketa badarabilzkit esku artean.

—Skateari lotuta ibili zarenez, zelakoa izan da bere bilakaera gurean? Ematen du harrobia badagoela, baina oihartzun handirik ez ei du lortu.

—Skatearen harrobiaren eta oihartzunaren gainean argi diot: benetan ona bazara eta arrakastarik edo lorpenik eskuratu gura baduzu gure herri hau ez da inolaz ere egokiena. Algortan bizi den eta kirol honetan diharduen profesionalen bat baldin badago, benetan patinatzaile itzela izango da eta bere bizitzaren erdia munduan zehar bidaiatzen emango du. Uste dut loriaren trenak herri honetako geltokian bidaiariak hartzeari aspaldi utzi ziola.

—Etorkizunerako proiekturik? Ametsik?

—Proiektuak, buruak ile adina. Adibidez: lehen aipatutako bi erakusketak eta gure eskualdean Uribe Kostako skaterren irudiak laster antolatuko dudana. Eta ametsak? Amesgaizto bihurtzen ez badira behintzat... ^m

XXII. Eskulangintza Azoka la 100 artisau eta 14 gastronomia postu maiatzaren 27tik 29ra Areetako karpan



Artisau kopuruengatik eta lekuaren tamainarengatik Euskal Herriko azokarik handiena ei da Getxokoa

Nazioarteari atek parez-pare zabalduko dizkio XXII. Eskulangintza Azokak eta Portugal, Kuba, Irlanda, Frantzia edota Italiako artisauen lanak ikusteko aukera egongo da. Hala ere, Areetako azokara hurbilduko diren ia 100 eskulangileen laurdena baino gehiago bertakoak izango dira, eta horietatik 18 bizkaitarrak.

Maiatzaren azken aste-akabuan (hilak 27-29) Areetako Geltoki plazan paratuko den karpan larru, egur, ehun, metal, harri zeramika eta beirazko lanak batera, bitxiak, erlojuak, margoak, jostailuak eta abar luze bat edukiko dute ikusgai eta salgai bertaraten direnek. Goizeko 11:00etan zabalduko dira azokako atek 14:30ak arte; arratsaldean, ostera, 17:00etatik 21:00ak arte.

Bestalde, sarrerak 2,50 euroko prezioa edukiko du (2 euro Gazte txartela eta erretiro-dunentzako). Kultur Etxeko azokako arduradun Iñaki Garatek azaldu moduan, “*iaz 16.000 lagun baino gehiago bertaratu ziren azokara, horregatik, etortzen diren artisau kopuruarengatik eta lekuaren tamainarengatik Euskadiko azoka handiena da; horrez gain aurten kanpoko artisau gehiago datozenez hemengoek eurakaz hartu harremanetan ipintzeko aukera ere edukiko dute eta kanpora ateratzeko kontaktuak ere egin ditzakete.*”

Ibaiondo kalean, gastronomia

Areetako Geltoki plazatik hurbil, Ibaiondo kalean, 14 bat gastronomia postutako jaki goxoak dastatu eta erosteko aukera egongo da. ^m

PORTU ZAHARREKO KORPUS JAIA HILEKO AZKENENGO DOMEKAN

Maiatzeko azkenengo domekan, hilak 29, Portu Zaharrak urteroko Korpus jaia hartuko du. Eguerdian puntuan Etxetxu plazan egingo den mezak emango dio hasiera egunari. Ostean, ordu bata aldera Algortako Biotz-Alai abesbatzak kantaldia eskainiko da eta ordurako gosea ere presente egongo denez, sardina erreak banatuko dituzte bertaratuak artean. Halaber, jaia ez da hor amaituko eta besteak beste arratsaldeko 19:00etan edo Los Cinco Bilbainos talde ezagunaren abestiakaz gozamen hartzeko aukera egongo da (sarrera doan).

SAN INAZIO JAIIETAKO KARTEL LEHIAKETARAKO EPEA ZABALIK

San Inazioetako Jai Batzordeak festok iragarriko dituen kartel lehiaketa ipini du martxan. Lanak ekainaren 6a baino lehenago aurkeztu beharko dira Villamonteko kultur etxean (Algorta). Gaia librea bada ere baldintza bakarra ipini dute Jai Batzordekoek, hurrengo esaldiek agertu beharko dute karteletan: “Algortako Iñaki Deunaren Jaiak 2005. Uztailak 28-31. Jaietan ere euskaraz!”. Irabazlearentzat 300 euroko saria emango dute antolatzaileek.

ESKOLA ANTZERKI TXAPELKETAK EGINGO DIRA EKAINAREN 3TIK 6RA

Getxoko ikastetxe publikoetako Lehenengo eta Bigarren Hezkuntzako 300 ikaslelik gora ibiliko dira antzerki lanak eskaintzen ekainaren 3tik 6ra. Urtean zehar egindako lanaren izerdia, nekea, beharrean jardundako ordu guztiak, urduritasuna, ilusioa... Getxo Antzokiko oholitza gainean ikusi ahaliko denaren atzealdea besterik ez da. Antzerkiari ume eta gaztetxo getxotarrak egiten dioten urteroko gorazarrea da, eta aurtengoa 23. omenaldia izango da.

cianoplan Reprografia
global printers

Vila de Plentzia 6. zbk
Antigua Gall - Getxo
Tlf. 944 649 067
944 648 691
<http://www.cianoplan.es>

Imprimatze eta plano kopiak •
Kartelak kolorez eta z/b •
Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua •
Fotokopiak kolorez eta z/b •
Era desberdinetako koaderneketak •
Plastifikazioak •
Cd eta DVD grabaketak eta imprimaketak •
ermarketak •



Alberto Garcia > Umore Azokaren antolatzailea

“Umore Azoka erreferentzia puntu bihurtu da estatu mailako zein Europako antzerkigintzan”

Maiatzaren 26tik 29ra antzerkiaren xarmaz beteko dira Leioako kaleak. Kale Artisten Leioako Umore Azokan herrialde ezberdinetako 40 konpainiatik gora eta 100 ikuskizun baino gehiago ikusi ahal izango dira herrian zehar atondutako bat-bateko 12 oholtzetan. Alberto Garcia azoka antolatzeaz arduratzen den kultur koordinatzaileak azpiko galdera sorta erantzun digu.



Argazkian, Alberto Garcia

—Zer azpimarratuko zenuke aurtengo Umore Azokan?

—Konpainien kopurua eta kalitatea go-raipatuko nituzke. Aurten, zortziehun taldetik gora eman dute izena azokan parte

«Aurten azokan parte hartzeko 800 eskakizun jaso dituzte antolatzaileek, 200 Frantziatik»

hartzeko, horregatik aukeratutakoak kalitate handiko ikuskizunak izango dira.

—Zer garrantzi lortu du azokak kaleko antzerki munduan?

—Esango nuke Umore Azoka erreferentzia puntu bihurtu dela bai estatuko, bai Europako antzerkigintzan. Aurten jaso ditugun

zortziehun eskakizunetatik berrehun Frantziakoak izatea adierazgarria da. Azokak europarrak erakartzen dituela argi dago.

—Zein da euskal taldeen presentzia? Eta euskararena?

—Euskal Herrian kaleko antzerkia lantzen duten 18 edo 20 konpainia egongo dira. Zorionez Leioako Azokak harrera ona izan zuen hasieratik eta talde hauek euren lanak estreinatzeke leku aukeratu dute Leioa. Euskarari dagokionez, hitza

agertzen duten euskal taldeen ikuskizun gehienek euskara erabiltzen dute; batzuk elebidunak dira eta euren esku geratzen da zein hizkuntza erabili.

—Zenbat kostatzen zaizue azoka antolatzea eta nondik lortzen duzue dirua?

—Zifra potoloa da. Aurrekontua 300.000 eurokoa da. Udaletxeak %75 ordaintzen du eta gainontzekoa Eusko Jaurlaritzan, Aldundiak, Euskaltel eta BBKren laguntzaz osatzen dugu. m

Jon Goldaratz > Lamiako Maskaradako kidea

“Mitologia, akelarrea, dantza, musika eta giro ona uztartzen ditu maskaradak”



Jon Goldaratz taldekideez inguruatuta

—Aurten 26. Maskarada antzeztuko da, nola izan zen sorrera?

—Lamiako auzoaren jatorria ezagutzeko asmoz herriko gazte batzuk elkartu eta artxibo eta dokumentuak aztertzen hasi ziren. Deskubritu zuten lamien herria zela Lamiako eta hortik hartzen zuela izena. Gerora, Lamiako auzoaren erroak azaltzen dituen Luis Trueba idazlearen kondairan oinarrituta gazte hauek herriaren nortasuna berreskuratu nahi izan zuten. Lamiak pertsonaia mitologikoak direnez antzeppen batean herriaren jatorria euskal mitologiako pertsonaiekin batera uztartzea pentsatu zuten. Handik sortu zen Maskarada.

—Zer esanahi du auzotarrentzat?

—Egun hori jaietako egun berezia izaten da. Jendea oso urduri jartzen da, benetan bizitzen dugunontzat oso hunkigarria da. Gure erroen historia antzeppen dugu herriaren aurrean, besteengandik ezberdintzen gaituen zerbait daukagu eta

horretaz arto azaltzen gara. Azken batean txikitatik bizi izan dugun kontua da, horregatik parte hartzeko gogo txikitatik pizten da gugan.

—Gonbidapena luzatu irakurleari...

—Euskal kultura, euskal festa gogoko duenak hemen ikuskizun berezia aurkituko du. Gainera, nahiz eta aurtengoa 26. urtea izan oraindik eskualdean ezezaguna da Maskarada. Akelarrea, mitologia, dantza, musika eta giro ona uztartzen ditu oso ikusgarria da. Gainera, auzoko jaiak direnez jai giroa eta umore ona ziurtatua daude. m

Maskarada

- **Noiz:** maiatzak 28, zapatua.
- **Arratsalde:** 17:00, Gaztelubide kalea.
- **Gau:** 22:00, Kultur Aretoaren aurrean.

ARTATZA-PINUETA IKASTETXEAREN 25. URTEURRENA

Artatza-Pinuetako ikastetxe publikoak 25 urte beteko ditu aurten eta datorren ekainaren 4an urteurrena ospatuko dute. Egun hori festa giroan pasatzeko hainbat jarduerak antolatu dute haurrentzako; hala nola, gaztelu puzgarriak, rokodromoa, saskibaloia eta futbol partidak, jolasak, tailerrak, pailazoak... Gainera, eguna girotzeko eta gura dutenentzat herri-bazkaria egingo dute ikastetxean bertan. 1980an Artatza-Pinuetako ikastetxeak bere hezkuntza ibilbidea abiarazi zuen Guraso Elkartearen, irakasleen eta Leioako Udalaren laguntzarekin batera.

KALEKO ARTEAK ERAKUSKETA KULTUR LEIOAN

Munduko umore eta arte jaialdien ibilbidean arakatzeko du *Kaleko Arteak* erakusketak hainbat jaialditako kartelen eta eskuko programen bitartez. Cornellako Pailazoaren Nazioarteko Jaialdiaren lankidetzari esker antolatutako lan hau osatzeko kaleko arteetako jantziak eta elementu adierazgarriak ikusi ahal dira erakusketan honetan. Gainera, Leioako Umore Azokak bere alal berezia edukiko du; azoka honek orain arte izan dituen edizioak gogora ekartzeko orain arte egindako bost edizioetako publikitate-materiala, argazkiak eta bideoak bildu dituzte. Lamiako Maskaradaren nondik norakoak ezagutzeko aukera ere egongo da.

Tokia: Erakusketaren aretoa, ekainaren 5a arte
Ordua: asteleheneetik ostiralera 10:00etatik 20:00etara, larunbatetan 17:00-20:00 eta igandetan 11:00-14:00.

PERKUSIO TAILERRA ATERPE GAZTE BULEGOAK ANTOLATUTA

Gazteen eskaerari erantzunez Perkusio tresnetan murgiltzeko tailerra antolatu du Gazte Bulegoak. Tailerraren bidez ikasleek perkusiorako erabiltzen diren tresnak ezagutu eta jotzeko aukera izango dute. Euskal tresnen artean panderoa eta txalaparta landuko dira eta atzerriko hainbat instrumentu ere musikatuko dituzte; besteak beste, bohran irlandarra, d'rбука egiptoarra eta kajoi flamenkoa. Tailerra astearteetan arratsaldeko 17:30etan izango da. Informazio gehiago eskuratzeko Aterpe Leioa Gazte Bulegoan (Kultur Leioan 1. solairuan edo 94 607 25 70 telefonoan).

ERROTULOAK



ERA GUZTIETAKO ERROTULOAK eta IMPRESIO DIGITALAK egiten ditugu

e-mail: hurstab@euskalnet.net

Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

udondo
taberna
eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2
T: 94 463 00 45 - LEIOA

Goikoako jai batzordea

la mila bizilagun besterik ez daukan auzo honetako Gorpuzti jaietako **gaupasak** ezagunak dira inguruetan eta **jende ugari** biltzen da bertara, batez ere eguraldiak laguntzen badu

Lehenengo aldiz datorrenentzat sinestezina izan daiteke halako jendetza biltzea, baina hala da. Gaupasa egiteko leku aproposa da Erandioko Landa. Aurten Gorpuzti jaiak maiatzaren 26tik 29ra ospatuko dituzte Goikoan. Jai batzordeko kideekin egon gara jaien antolaketari buruz hitz egiteko.



Jai batzordeko beharginik handienak

Hamar bat lagunek osatzen dute Erandio Goikoako Jai Batzordea, baina gehienbat Janire, Antonio, Ekaitz, Aitor eta Fede dira antolaketaren ardura daramatenak. Eta norbaitek batzordeko lehendakari izan behar duela eta Antonio izendatu dute horretarako.

Duela hiru urte hartu zuen 20-26 urte arteko lagun koadrila honek jaiak antolatzeko ardura, lehenago pertsona bakarraitzen guztia mugiarazten zuena. Jaiak izan baino bizpahiru hilabete lehenago hasten dira batzordekoak biltzen beharrezko diren ardurak banatzeko eta lotu beharrekoa lotzeko. Martitzenetan daukate hitzordua txokoan.

Aurrekontuaz galdetuta, urte batetik bestera zorretan geratzen direla eta egoera hori ezin gainditu dabilzala azaldu digute. Udalak aurten 13.500 euroko diru-laguntza emango die eta kopuru hori musika taldeak ordaintzen gastatuko dute. Gero herriko denda eta lantegietan ere eskatzen dute laguntza eta, hortik aurrerakoa, txosnan ateratzen dutenarekin osatu behar. Eguraldiak lagunduz gero, txosna diru-iturri oparoa izan daiteke,

baina euripean negozio eskasa.

Diru kontuak albo batera utzita, eguena izaten ei da herriko jendearentzat jaiegunik aproposena, bertakoak bakarrik egoten direnez giro polita sortzen delako, baina bariku-zapatuko berbenak eta gaute hitzordua txokoan.

«Eguena izaten ei da herriko jendearentzat jaiegunik aproposena»

pasak izaten dira Erandio Landako jaietako izar nagusi. Horrelakoetan jai batzordeko kideek parrandarako astirik daukaten galdetu diegunean, laster erantzun dute baietz, txosnan gaueko txandak egiteko zerbitzariak kontratatzen dituztela eta eurek ez dutela barran egon beharrik. Horrela bai! m

Egitaraua

- **Maiatzak 26, eguena**
20:00 txupina eta kale animazioa.
23:30 berbena, Kresala taldea.
- **Maiatzak 27, barikua**
19:00 Saiheski errea.
Lehiaketak: igela, futbolina, zakua.
23:30 Berbena, Amaiur. Gero disko gaua.
- **Maiatzak 28, zapatua**
11:00 Umeentzako jolasak: puzgarriak.
15:00 Herri bazkaria: paella 500 lagunentzat. Ostean, mus txapelketa.
18:00 Beteranoen futbol partida Arteaga zelaian: Apurtuarte - Balmaseda.
19:00 Dantza erakustaldia Goi-Alde dantza taldearekin.
23:30 Gau pasa, EGAN eta Luartz.
- **Maiatzak 29, domeka**
12:00 Jaunartzeak.
17:30 Herri kirolen erakustaldia.

Jolas eta solas ekimena

Elkarrekin jolastuz euskaraz solas egitea helburua duen programa abian ipini du Euskara Zerbitzuak



Familia bat lehiaketan parte hartzen

Guraso eta ume euskaldunak elkarrekin ari dira olgetan Euskara Zerbitzuak antolatutako *Jolas eta Solas* lehiaketan. Maiatzaren 8an egin zuten lehen saioa kiroldegi ondoko plazan eta gero beste hiru saio egingo dituzte ekainaren amaiera bitartean. Euskaraz dibertitzea eta ondo pasatzea da ekimen honen helburua, lagunartean eta familiakoen artean euskara erabiltzeko ohitura sendotze-ari begira.

Hamaika familia zeuden parte hartzeko izena emanda eta lehenengo egunean guztiak aurkeztu ziren jolas lekuan eguerdiko hamabietan, ordu eta erdiko saioari ekiteko prest. Lehenengo saio horretan partxis erraldoia, mikadoa eta tribiala izan

zizuten jolaserako eta giro ona sortu zen. Gainera parte-hartzaileen artean ez zen lehiakortasunik falta izan, guztiak baitute gustuko sari nagusia, batez ere gaztetxoek: Disneyland Paris-erako bidaia heldu bi eta haur birenzat.

Ekintzetan puntuak pilatzen dituzte bakoitzak lortutako emaitzen arabera eta, gaztelaniaz berba eginez gero, puntuak galtzen dituzte. Azkenean, saio guztiak amaitzean punturik gehien duen familiak irabaziko du bidaia.

Bigarren saioa maiatzaren 22an izango da eta abilezia eta errendimendu fisikoa neurtuko dituzte herri kiroletako ekitaldi berezian. m

JOSU MURUETAKO ARETOAK ERABILTZEKO TASAK EZARRI DITU UDALAK

Datorren ikasturtean Udal Euskaltegia eta Musika Eskolan indarrean izango diren tasak onartu zituen Udalbatzak apirilko Plenoan. Udal Euskaltegiaren kasuan %6,4ko igoera egongo da, HABEK ezarritako orduko tasara iristea baita asmoa. Musika Eskolako tasak, ordea, %3,4 igoko dira eta tasa berriak ezarri dituzte orain arte aurrekusi gabeko zenbait zerbitzutan. Bertako ikasle ez direnek kuotak ordaindu beharko dituzte Musika Eskolako musika-tresnak edo ikasgelak erabiltzeko, eta alojera kobratuko zaie, hitzaldiak, ikastaroak, kontzertuak eta abar egiteko Josu Murueta kultur etxeko aretoak erabiltzen dituztenei ere bai. Irabazi asmorik ez duten herriko taldeek, baina, ez dute ordaindu beharrik izango.

ONGI ETORRI, AIBOA!

Jende mordoak bildu zen joan den maiatzaren 6an Astrabuduko Josu Murueta plazan Aiboa Casares gazteari ongi etorria emateko. Aiboa 2002ko martxoan atxilotu zuten Garzonek irekitako 18/98 sumarioagatik eta hiru urtetik gora eduki dute preso Espainiako hainbat kartzelatan badaezpadako espetxealdian. Aiboa eta beste 41 gazte aurreko hilabeteetan epaitu dituzte Jarrai-Haika-Segi gazte erakundearen aurkako epaiketan eta apirilaren amaieran akusatu guztiak behin-behinean aske uztea erabaki zuen epaileak. Esandakoa, ongi etorri!



OSABIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokor- ma
- Ortodontzia
- Periodontzia

Bidebarrri 27, behea eskuina
ALGORTA
94 94 430 76 96

Basolanak T. 94 467 17 13
F. 94 467 42 41

- Zuhaitzen landaketa
- Podak
- Itxierak
- Garbiketak
- Tratamendu fitosanitarioak

ERANDIO (Bizkaia)
Mobila
Asier: 629 411 838
e-posta: basolanak@terra.es

Lorategien zainketa
DEITU!

URIBE BAZTERRA MUSIKA BANDARENTZAKO KIOSKO BERRRIA

Eleizalde kaleko plazan egongo da Sopelanako musika kiosko berria, eta dagoeneko hasi dira horretarako lanak. Herriko Uribe Bazterra Musika Bandaren kontzertuetarako egoitza izateko paratuko dute kioskoa eta San Pedro jaietarako-edo amaituta eta emanaldiak emateko prest egotea espero dute. Udala arduradunen esanetan, Kioskoa Eleizalden lekutzearen arrazoiak dira herriko erdialdean egotea, eta ingurunea oinezkoentzako eta lasaia izatea.

BIDEGORRIA LUZATUKO DUTE HONDARTZA SASOIA HASI BAINO LEHEN

Arrietara kalean dagoen bidegorria hondartzarino luzatzeko asmoa dauka Sopelanako Udalak. Egitekoa hondartza sasoiari hasi baino lehenago amaituta egotea espero dute arduradunek eta horrela uda sasoiari hondartzarako bidea bizikletaz, oinez, patinez... egin ahal izatearen aldeko apostua bultzatu gura dute.

BODYBOARD, XAKE ETA FUTBITO TXAPELKETA

Bizkaiko Foru Aldundiak antolatuta xake txapelketa egongo da Udalaren lokaletan, maiatzaren 21ean goizeko 10:00etatik 12:00etara. Ostera, maiatzaren 23an Sopelanako Udala XVIII. Futbito txapelketa hasiko da, partida guztiak Urko kiroldegian jokatu dira 19:00etatik aurrera. Amaitzeko, Sopelanako AIB bodyboard internauten elkarteak II. Bodyboard AIB txapelketa antolatu du ekainaren 4 eta 5rako Sopelanako hondartzan. Txapelketa hurrengo mailetan banatuko da: open sub-18, sub-16, master, emakumezkoak (izen ematea doan) eta dropknee. Izen emateko epea ekainaren 2an amaituko da. Informazio gehiago: www.aibodyboard.com

Igeltsera gaztetxea altxatzen Gazte Asanbladaren asmoak eta helburuak



Urdulizko eta Sopelanako 50 bat gaztek osatzen dute Gazte Asanblada

Hilabetea joan da Sopelanako eta Urdulizko gazteek lehen Mecanica La Peña behartokia zena itxaropen koloreko Igeltsera gaztetxe bihurtu zutenetik. Hiru hil lehenago osatu zen Sopelako eta Urdulizko Gazte Asanblada eta oarin euren proiektua herriari ezagutarazi eta aurkezteko lanetan dabil. Asanbladaren helbururik nagusiena, bertako kide batek azaldu zuen legez, "gazte mugimendu sakon eta indartsu baterako sustraiak lurrari ondo lotzea da, eta bere biziraupena bermatzea". Aurreko asanbladak denbora luzea eman zuen kalean batzen eta ekitaldiak antolatzen, horregatik oraingoan okupazioa beharrezkoa zela erabaki zuen sakon eztabaidatu ostean. Hala, legez

Foru Aldundiarena den eraikinean Igeltsera gaztetxea altxatzen dabilta: ekitaldi nagusietarako 3 pabiloi handi eta alboko bulego-erakinean batzar gela, liburutegia, material gela etab. paratu dituzte. Gaztetxea atontzeaz gain, asanbladaren erronka nagusiak hauek dira: "etxebizitza duin baten eskubidearen alde lan egitea, kultura eta aisialdiaren gestioa herriaren esku hartzea eta enpresa pribatuei ez uztea, Uribe Kostako Korridorea eta Lurralde Plan Partziala moduko proiektu txikiak gaitzestea, etab". Herriko jaietan parte hartzeko konpartsa bat sortzeko asmotan ere badabilta. Eguazten eta domeketan batzartzen dira gaztetxean eta ateak zabal-zabalik daude. m

Nuyum Sahararen aldeko elkarteak sortu dute Ander Deunako ikasleek



Nuyum elkartearen aurkezpena. Harremanetarako: 655 722 046

Pasadan urte amaieran El Aiuneko saharar errefuxiatuen kanpamendura egin zuten ikasbidaia Ander Deuna ikastolako ikasleek eta Olof Palme eskola saharaiagaz senidetatsun harremana sortu zuten. Bidaia hark oraintsu eman du beste elkartasun fruitu bat, Ander Deunako 15 bat ikasleek eta irakasle batek Nuyum (izarrak) Saharako herriaren aldeko elkarte osatu berri dute-eta. Maiatza hasieran aurkeztu zuten elkarte Sopelana eta bertako kide Eneko Callek azaldu legez: "elkarte Uribe Kostako Mankomunitateari begira sortu da Getxotik honantz ez zegoelako horrelako elkartaririk; eta herri saharaiaren auzia, gatazka, egoera latzen berri gure eskualdean zabalteko, daukagun harremanari eusteko eta laguntzak bidaltzeko asmoagaz osatu da taldea". Lanean buru-belarri dabilta dagoeneko Nuyumekoak eta lehenengo egitekoei ekin diete dagoeneko: uda sasoiari "Oporrak Bakean" egitasmoaren bitartez gurea etorriko diren ume saharaiuentzako ekintzak eta ekitaldiak

antolatzeko eta haurrok etxean hartuko dituzten familiei laguntza emateko ardura hartu dute. Zehaztu dituzten ekimenen artean Donostiara eta Oñatira irteerak eta mendian zein hondartzan egiteko jarduerak daude. Momentuz, Sopelana eta Gortizko udalen atxikimendua lortu dute, eta Callek dioenez, "datorren urtean "Oporrak Bakean" egitasmoan esku hartzen duten Mankomunitateko beste udalena ere lortzea espero dugu". Nuyumeko kide izateko urtean 12 euroko kuota ipini dute eta hurrengo batzarra uztailearen lehen egungo dute (18:00) Sopelanako udaletxean.

Uda osteko proiektuak

Udaldia amaitutakoan zenbait proiekturi ekingo diete Nuymekoek, hala nola, Dorako (El Aium) ospitalerako ahalik eta tresneria gehien batu eta Olof Palme eskolako fotokopiagailu bat bidali. Sahararren nuyum-ak eta sopeloztarren izarrak euren beude, ilargia lagun, elkartasunaren soinupean bat eginda. m

LAIKAK
Taberna

Bentatu, 2
48600 Sopela
Tlf. 94.6760328

ANDER DEUNA IKASTOLA


- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. Sopelana
Tfnoa.: 946760266 - Email: sopela@ikastola.net

JATETXE BEGETARIANO

- Eguneko menuak
- Asteburuetan menu bereziak

Seruitza 4, Sopela
Telf. erreserbak: 645 732 991



4 bide pinturak



Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturbarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

moda gaztea opariak

IRATI

Torre 2, ALGORTA
T. : 94 491 12 71

Egunkariak prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero, etxera eramaten dizugu egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78
T: 94 491 27 34

ANJE DUHALDEK ETA KUKUMA TALDEAK JOKO DUTE HILAREN 21EAN

Berangoko Udalak, Kultur Etxeak eta herriko hainbat kirol eta kultur taldek antolatzen dituzten Kultur Jardunaldiak aurrera doaz. Hurrengo jardueren artean ACADAE taldearen *Tres saintes* antzerki lanaren ikuskizuna dago, maiatzaren 21ean da hitzordua Kultur Etxean (19:30). Egun berean baina eskolan ipini duten karpapean bi kontzertugaz hartu ahal izango da gozamenen: Anje Duhalde abeslari ezagunaren kantu entzutetsuakaz, eta Kukuma talde gaztearen freskotasunagaz eta euren lehenengo diskoko kanta berriakaz.

Informazio gehiago: www.berango.net



Berangoko txirrindulariak bidean Hilaren 21erako martxa prestatu dute



Argazkian Berangoko Txirrindulari Elkarteak gazteak txangoan

Berangoko Txirrindulari Elkarteak antolatutako eskolarteko txirrindulari lasterketak eta topaketek bizikletari gazte bete zuten herria maiatzaren 8an. Hurrengo hitzordua hilaren 21erako ipini dute eta honakoan martxa zikloturista prestatu dute (irteera Elexalden, 12:00). Bestalde, lehenengo eta bigarren urteko kadeteen lasterketa, Santa Anako Sari Nagusia, edota eliteko Ricardo Otxoa lasterketa ere antolatzen dituzte urtean zehar.

Txirrindulari Elkarte eskola ere bada eta Otxoa Txirrindulari Taldearen errautsetatik jaio zen 1998an txirrindulari eskola, Jabi Garcia bertoko lehendakariak azaldu duenez. Horregaz batera, zikloturista taldetxo bat ere sortu zen.

Gaur egun 18 bat txirrindularik (hasiberrietatik haurren bigarren mailara arte), 4 neskato barne, osatzen dute Berangoko harrobia, eta euren bi gurpilen gidari 5 bat entrenatzaile dabilta. Garciak jakinarazi legez, *“aurten txirrindulari batzuk Ugeraga taldera bidali behar izan ditugu, ezin izan dugulako jende gehiago hartu, baina datorren urtean horretarako prest egotea espero dugu; ume txiki-ixuak ere etorri ziren baina bidera ateratzeko-eta, gu kotxeagaz eta txirrindulari nagusiakaz bagoaz ere arrikustua izan liteke, lar txikitxuak ziren, baina hurrengo denboraldian 7 urtetik gorakoa hartuko ditugu, beraz gura duenak badaki nora jo”*. m

Araldi Emakume Kultur Elkarte

Emakumeen alde eta orohar kultur ekitaldiak antolatzen **hamabi urte** daroaz Plentziako Araldi elkarteak



Araldiko kideak martitzenetan batzartzen dira Kristo enparantzako lokalean. Harremanetarako: 94 677 50 31

Plentziako Udalak Emakume sail bat sortzeko asmoa plazaratu ei zuen orain dela hamar urte baino gehiago, eta egitasmoak erakarrira emakume talde bat batu zen. Gerora, ez da sail berezirik sortu, baina ereindako haziak eman zuen bere fruitua eta emakume elkarte bat sortu zen: Plentziako Araldi elkarteak.


Hastapeneko zailtasunak eta aldapa gora denak gainditu ostean, dagoeneko hamabi urte daroaz Araldik emakumearen alde lanean eta kultur ekitaldiak antolatzen. 9 emakumek sortutako elkarte hark 290 bazkide inguru dauzka gaur egun eta emakumeentzako jarduerak antolatzeaz gain, ume eta gazteentzako ekimenak ere prestatzen ditu. Gainera, Araldiko presidente Begoña Hurtadok adierazi moduan, *“gehienbat emakumeei eta umei begira egiten ditugu ekintzak, baina gure ateak ez daude ginezkoentzat itxita, eta baten bat animatzen da ikastaroetan-eta parte hartzerá”*. Bestalde, Plentziako elkarteak bada ere Gorliz, Barrika eta Lemoizko kideak ere badaude elkartearen.

Hamaika dira urtean zehar Araldik antolatzen dituen hitzaldi, lehiaketa eta batez ere ikastaroak: gimnasia, aerobic, gym-jazz, salsa eta “sevillana” dantza ikastaroak, tai-chi, yoga, taikuondo, balet, pintura, sukaldaritza, igeriketa, eskulanak, masa-je terapeutikoa... Lehiaketen artean aipatze-koak dira argazkilaritza, kontakizun laburrak, edota tortilla eta pastel txapelketa.

Apurka-apurka parekotasunerantz Hurtadoren esanetan azken 10 urteotan emakumearen egoerak hobera egin du: *“lehen etxe barruko gauzak bakarrik genituen, orain aukera gehiago eta askatasun handiagoa dago, eta gizonezkoek ere hori ulertu eta onartzen dute; ostera, oraindik asko geratzen da egiteko”*. Bestelako aldarrikapena ere badaukate: *“erakundeek paper eta burokrazia kontuak erraztu behar dituzte”* m

INGURUMENAREN ALDEKO ASTEA HILAREN 30TIK EKAINAREN 4RA

Aurtengo Kultur Jardunaldiek ingurumenari eta naturari ere lekua egin gura izan diete. Horretarako aste osorako jarduera mordoan antolatu dute eta Aste Berdea deitu diote. Maiatzaren 30ean hasi eta ekainaren 4ra arte ingurumenari lotutako hamaika lantegi eta marrazki lehiaketa prestatu dituzte. Jarduerok Kultur Etxean egingo dira egunero 17:00etatik 20:00etara. Azken egunean, Aste Berdea Jaialdia egingo dute eskolan edota frontoian eta bertan puzgarriak, lantegiak, txirristak, marrazki lehiaketaren sari banaketa etab. aurreikusten dira.



Basurto

Algorta S.L.

altzariak

Telletxe 4 • T: 460 71 62 / Telletxe 15 • T: 460 42 44 • ALGORTA

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- **1970**az geroztik altzariak diseinatzen.
- 300 m²ko erakusketa **ZURE ZAIN!**
- **ARMAIRUAK NEURRIRA** egiten ditugu (Telletxe 4)



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ

T: 94 676 07 15

BASARTENA



URDULIZ

Teléfono: 940 761 123

Ajuria
taberna

Andrés Cortina 2

ALGORTA



BASALBO BASERRIA

JATETXEA

TEL./FAX: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18
48993 ANDRA MARI - GETXO

basalbobaserria@yahoo.com

ARABA EUSKARAZERA JOATEKO AUTOBUSA IRTENGO DA PLENTZIATIK

Plentziako Goñi Portal kultur etxeak Araba Euskarazera joateko autobusa ipiniko du. Aurten Aresketa ikastolak (Amurrio) antolatuko du ikastolen jai handi hau ekainaren 19an. Hitzordu berezia da aurtengoa, izan ere Araba Euskarazek bere 25. urteurrena ospatuko du. Aukeraturako leloa "Ekiozu bideari" da eta Zumetak egin du ekitaldia iragarriko duen kartelerako arte lana. Autobusa goizeko 8:00etan irtengo da Charterretik, 8 euroko prezioa dauka bidaia eta izena emateko epea maiatzaren 27an zabalduko da.

URDULIZKO JAIK IRAGARTZEKO KARTEL LEHIAKETA

Urdulizko kultur etxeak Andra Mari jaiak iragarriko dituen kartel lehiaketa antolatuko du. Lanak ekainaren 11 baino lehen aurkeztu beharko dira Kultur Etxean bertan eta oinarriak eta beteharrekoak ere han daude eskuragai.

Informazio gehiago: 94 676 36 31

V. UDABERRIKO PALA TXAPELKETA HASI DA

Bigarren mailako Bizkaiko V. Udaberriko Pala Txapelketa martxan dago dagoeneko. Hurrengo pala partidak maiatzaren 29an, domeka, izango dira goizeko 10:00etan Gorlizko pilotalekuan.

GORLIZ

Udaleku irekiak uztailean eta abuztuan zehar



Mendi-ibilbideak, eskalada... umeentzako era askotako ekintzak antolatu dituzten

Gorlizko kultur etxeak, iaz legez, udaleku irekiak antolatu ditu 6 eta 12 urte bitarteko umeentzat herrian bertan egingo direnak: hondartzan, pinudian eta inguruko mendietan. Udalekuok uztailean eta abuztuan egingo dira astelehenetik barikura eta goizeko ordutegian: 11:00-14:00. Izena emateko epea maiatzaren 31n amaituko da eta Gorlizen erroldatuta daudenentzako aste batek 25 euroko prezioa dauka; beste herrietakoentzat, ordea, 39 euro. Astelehenetan

ekitaldi desberdinak egingo dituzte umeek: indiaka, sokatira, hankapaluak, txingak, txorokil bilketa... Martitzenak urari lotuta egongo dira eta bodyboard eta bestelako ur-jardueretako txapelketak prestatuko dituzte. Eguaztenetan, besteak beste, eskalada egiten ikasiko dute haurrek. Eguenak arkitiroa eta tirolina egiteko erabiliko dituzte. Eta barikuetan mendi-ibilbideak antolatuko dituzte. m

Informazio gehiago: 94 67740 00

Mai. 22 - Eka. 5

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: uk@aldizkaria.biz • Tel.: 94 491 13 37 • Fax.: 94 491 58 31

ERAKUSKETAK

GETXO

► **Getxoarte.** Arte Sortu Berrien Aretoa. Maiatzak 20-22. 11:00-14:00 eta 17:00-21:30. Sarrera: 2 euro.

► **Patxi Bengoaren lanak.** Erromoko kultur etxea. Maiatzaren 28ra arte.

► **Kultur Etxeko lantegien erakusketa.** Erromoko kultur etxea. Maiatza30-ekainak3.

GORLIZ

► **Oporrak.** Liburu-erakusketa. Udal liburutegia. Maiatzaren 31ra arte.

LEIOA

► **Umore Azoka: Kaleko Arteak.** Kartelak, eskuko propaganda, eta Euskal Herriko konpainiek antzezitutako kaleko arteko jantziak eta elementu adierazgarriak. Kultur Leioa. Ekainaren 5era arte.

ERANDIO

► **Miguel Baliache, Xabier Urberuaga eta Wolf Hamm artista gazteen margoak.** Epelde&Mardaras Arte Galeriarren ekimenez. Altzagako udal merkatua. Ekainaren 10era arte.

ZINEMA

GETXO

► **Heffalump.** Haur zinea. Getxo Antzokia. Maiatzak 22, domeka. 12:00, 17:00 eta 19:00.

► **En el Mundo a cada rato.** Zine-Klubeko denboraldiko azken filma. Getxo Antzokia. Maiatzak 25, eguaztena. 19:30.

► **Las tortugas tambien vuelan.** Cinema Paradisoko denboraldiko azken filma. Azpitoludun jatorrizko bertsoan. Getxo Antzokia. Maiatzak 27, barikua. 22:00.



► **Umore azoka**

41 konpainia, 127 antzerki lan, 21 estreinaldi...

Kale Artisten Leioako Umore Azokak kaleko antzerki eta arteen topaleku izango da maiatzaren 26tik 29ra. Herriko kaleak protagonista bihurtu eta kaleko antzerkiari herriko ateak parez pare zabalduko dizkio azoka leioztarrak, eta Euskal Herriko zein nazioarteko konpainiek Leioara bertaratuko direnen gozamenerako jardungo dute. Guztira 41 konpainia, 127 antzezpenez, horietatik 20tik gora estreinaldi... lau egunez barre egiteari eta gozatzeari ez uzteko aukera Leioan. Hori guztia galtzeko prest al zaude?

Informazio gehiago: www.umoreazoka.org

• **Non:** Leioako kaleetan eta Kultur Leioan • **Noiz:** Maiatzak 26-29

► **Bob Esponja.** Haur zine denboraldiko azken filma. Getxo Antzokia. Maiatzak 29, domeka. 12:00, 17:00 eta 19:00.

LEIOA

► **Zientzia Fikzioa.** Haur Zinea euskaraz. Kultur Leioa. Maiatzak 22, domeka. 12:00 eta 17:00.

► **El secreto de Vera Drake.** Perseo zineforuma. Zine ingelesari eskainitako zirkloa. Kultur Leioa. Maiatzak 31, martitzena. 20:00.

► **El secreto de los McCann.** Perseo

zineforuma. Zine ingelesari eskainitako zirkloaren barruan. Kultur Leioa. Maiatzak 31, martitzena. 20:00. Sarrera: 2 euro.

► **Robot.** Haur Zinea. Denboraldiaren amaiera. Kultur Leioa. Ekainak 5, domeka. 12:00 eta 17:00.

► **Entre Copas.** Zine komertziala. Denboraldi amaiera. Kultur Leioa. Ekainak 4, 19:00 eta 22:00. Ekainak 5 eta 6, 20:00.

PLENTZIA

► **Mar Adentro.** Helduentzako zinea.

Erakusgela. Maiatzak 27, barikua. 22:00.

► **Shrek 2.** Gazteentzako zinea. Erakusgela. Maiatzak 28, zapatua. 18:00.

ANTZERKIA

GETXO

► **Que se mueran los feos.** Bonbolinak. Getxo Antzokia. Maiatzak 27, barikua. 19:00.

LEIOA

► **Cloun Dei.** Teatro Meridional. Umore Azokaren barruan. Kultur Leioa. Maiatzak 26, eguena. 20:30 eta 00:30. Sarrera: 10 euro.

► **Leo Masliah.** Umore Azokaren barruan. Kultur Leioa. Maiatzak 27, barikua. 20:30 eta 00:00. Sarrera: 10 euro.

► **Antonia Machin.** Las Veneno. Umore Azokaren barruan. Kultur Leioa. Maiatzak 28, zapatua. 20:30 eta 01:00. Sarrera: 10 euro.

► **Ay... Manolo.** Tentacion Peineta. Kultur Leioa. Ekainak 1, eguaztena. 20:30. Sarrera: 10 euro.

BESTEAK

BERANGO

► **Kukuma eta Anje Duhalde.** Kultur Jardunaldien barruan. Eskolako karpa. Maiatzak 21, zapatua. 22:00.

LEIOA

► **Maskarada.** Lamiakoko jaiak. Maiatzak 28, zapatua. 17:00 eta 22:00.

SOPELANA

► **AIB II. Bodyboard txapelketa.** Bodyboardeko Internauta elkartearen ekimenez. Sopelanako hondartza. Ekainak 4 eta 5. Izena emateko ekainak 2 baino lehen.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA



20 ANIVERSARIO
URTEURREN



KLIMATIZAZIO

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114

48640 Berango, Bizkaia

tel. 94 668 15 51

Taxa. 94 66829 92

e-mail: vasa@euskalnet.net



ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA



Basalbo baserria

Gaizka Escudero *Pipi* sukaldari paregabe algortarra buru duela, atek ireki berri ditu Basalbo Baserria jatetxeak. Getxoko Martiturri estartako Basalbo baserria, aspaldian utzia, bere azkenetan zegoen. Hura bikain zaharberritu eta hantxe paratu du bere jatetxe dotorea Pipik. Zabaltze egunean -hilak 4 zituelamakina bat lagun bertaratu zen Basalbora. Alaitasuna handia zen, giroa aparta, ardoa primerakoa eta pintxoak bikainak. Zorte on basalbotarrak!

Argazkiak: **Asier Mentxaka**



Honezkerok denok edukiko duzue Gorlizko hondartzan egingo diren aldaketen berri. Hainbat lan egingo dira haren tamaina handitzeko, eta horrek sortuko dituen ondoriek zeresan handia piztu dute. Besteak beste, Astondo inguruko tabernak eta jatetxeak bota egingo dituzte, komunikabideek esan dutenaren arabera. Horrek aurkako zenbait erreakzio eragin du herritarrengan eta bertan dabilzan ostalariengan. Guk osteratxoa egin dugu Gorliz aldera, taberna horietan behar egiten dutenen iritzia ezagutzeko asmoz; momentuz, informazio zehatz falta da nagusi. Izan ere, proiektuaren xehetasun batzuk finkatu barik dagoz oraindik.

Hondartza “berria”

Ezin denak pozik egon

Testua: **Unai Brea** / Argazkiak: **Asier Mentxaka**

Areilza doktorea lekuz aldatuko dute

Gorlizko hondartzan egin beharreko lanek Enrique Areilza doktorearen omenezko bustoa mugitzera behartuko dute. Sendagile ezagun hura izan zen, hain zuzen, Gorlizko gaixoezaren sustatzailea, 1919an; orain, are gehiago hurbilduko da bertara: errepide ertzetik kendu eta ospital alboan ipiniko dute, haren lursailen barruan. Enrique Areilza bilbotarrak kemen berria eman zion Bizkaiko osasungintzari, eta Mediku Elkarteko presidente izendatu zuten 1917an.



Espainiako Ingurugiro Ministeritzak, Kostalde Zuzendaritzaren bitartez, Gorlizko hondartza handituko du. Bikoiztu, hain zuen ere. Gaur egun, hondartza oso murriztuta geratzen da marea gora datorrenean -leku batzuetan desagertu egiten da ia-, eta hori saihestu gura dute proiektuaren egileek. Lanak urtebete barru hasiko dira, gitxi gorabehera.

Asmo hori gauzatzeko, hondartza albotik doan errepidea desagertu egin beharko da. Horrek, besteak beste, hondartza “berria” Gorlizko gaixoezaren ateraino bertaraino joango dela esan gura du.

«Proiektua ez da behin betikoa, baina aldaketa gitxi egongo da»

Eta ez hori bakarrik. Gainera, ospitalak gaur egun dauzkan lurretako batzuk galduko ditu hondartzaren mesedetan.

Baina zalantza barik Astondo inguruko tabernen etorkizunak sortu du ikamika gehien. Itxura guztien arabera, proiektuak aurre egin dezan bota egin beharko dituzte taberna horiek, eta askok ez dute atseginez jaso iragarpen hori.

Alegazio fasean oraindik

Gugaz berba egin duten tabernariak komunikabideen bitartez jakin dute euren

gaur egungo lantokiak desagertzeaz daukela. Oraindik ez dute inongo instituzio-aren aldetik jakinarazpen ofizialik jaso; horren zergatia Madrilgo Gobernuaren Bilboko Azpiordezkaritzak azaldu digu: *“Proiektua alegazio fasean dago orain, eta beraz ez da behin betikoa. Epe hori amaitutakoan, argitaratu egingo da, eta tabernetakoei ere jakinaraziko zaie. Edozelan, negoziazioa egingo da interesa daukaten guztiakaz: Udala, tabernak..”*

Hala eta guzti ere, Gobernuko Azpiordezkaritzako iturriek adierazi digute komunikabideek esandakoaren %90 inguru

beteko dela. Beraz, alegazioek ez dute aldaketa lar eragingo, antza denez.

Negoziatioak, egia esan, aspalditik hasita dagoz, edo hala esan digu Igor Manzanetek behintzat. Manzanetek Haizea taberna dauka alokatuta Astondon, eta segurutzat emoten du beraren gaur egungo lantokiaren egin duela. *“Hamar urte daroetz Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak, Udalletxeak, Ministeritzak eta Osakidetza gai honen unguruan berbetan –diosku-; orain-txe dira hamar urte taberna alokatu nuela, eta orduan ere banekien inoiz botako zutela.”*



Argazkiotik: Gorlizko hondartza, hondartzak mende hasieran zuen itxura eta arearen borroka



Bezereen oniritziak ez

Igor Manzanetek, beharbada aurretik eza-gutzen zuelako bere tabernaren patua, ez du bereziki txarto hartu -ondo ere ez, noski- hondartzan egin beharreko aldaketen berria. Gainera, eta aipatu izan denez, baliteke taberna berriak egitea botako

tek dioenez: *“Herrian ez dago beste ezer gazteentzat, eta hemen ez diogu inori eragotzen. Gainera, ez dute gura gazteentzako lokalak hirigumeetatik kanpo egotea, zanatarik ez egiteko? Ba, hemen gagoz ondoen”*. Ez luzerako, egitasmoak ez dauka-eta atzerabiderik. Patxo Igartua alkateak dios-

«Askori ez zaio gustatu Astondo ingurua taberna barik geratzea»

dituztenen ordez, orain dagoen lekutik apur bat gorago. Edozein kasutan, hemendik aurrera egin beharreko negoziatioetan zehaztuko da hori. Momentuz, bezere askori ez zaio batere gustatu Astondo ingurua taberna barik geratzea, Manzane-

kunez, *“Udalletxeak, Jaurlaritzak eta Aldundiak oniritzia emon diogu dagoeneko Ministeritzaren asmoari, eta zuzenketaren bat ere egin dugu”*. Baliteke Udala bera izatea tabernariakaz negoziatioak egingo dituenak, baina hori erabakitzeke dago oraindik. m

Larrabasterrako hondartzan auzia

Sopelanan, Arrietara-Atxabiribil hondartza bikotearen erdian gitxi gorabehera, garai batean jatetxe eta diskoteka izandako eraikin huts batzuk dagoz. Guztiz hutsik? Ez. Jatetxe bakarrak eusten dio. Baina geroago egingo dugu berba horretaz.

Kostalde ondoan dagoenez, eraikinok Espainiako Kostalde Zuzendaritza Orokorraren ardurapekoak dira, 1988ko Kostalde Legeak ezarritako baldintzetan. Hala, aipatutako zuzendaritzak emoten ditu baimenak eremu horietan jardun gura

«Orain dela hamar urte amaitu zitzaizen baimena hondartza alboko ostalaritza-negozioei»

duten negozioentzat. Larrabasterrako hondartzakoenak orain hamar urte agortu ziren, baina bertan zegozanak -batzuk behintzat- ez ziren joan. Hori zela-eta, zazpi urte inguru dirauen prozesu judiziala hasi zen, Kostalde Zuzendaritza eta ostalarien artean.

Esan dugunez, gaur egun jatetxe bakarra dago bertan. Zoritxarrez, bertako ugazabak ez du gugaz berba egin gura izan. Baina badakigu aurrera egiteko gero eta zailtasun handiagoak dauzkala, Udalak hondartzarako errepidea moztu zuenetik batez ere. Epailiek, gainera, Kostalde Zuzendaritzari emongo diote arrazoia seguruenik, eta azkenean, jatetxea utzi ez eze isuna ordaindu beharko du ostalariak. Bestalde, Kostalde Zuzendaritzak ez dauka oraindik proiektu argirik inguru horretarako, eta hala izango da prozesu judiziala amaitzen ez den artean.





Olatua Plentzian

Alfredo Aldai

Iraila aldean marea biziak izaten dira. Itsasoa haserre, odolberotuta, egoten dela ematen du eta horregatik olatu neurrigabeak jaurtiz zigortzen du kostaldea. Alfredo Aldaik utzi digun irudi honek ederto erakusten du hori.

[berbetan]

Ondotxo dakizue (La 2eko dokumentalen jarraitzaile zaretenok, batez ere), lehoi talde batean emeek egiten dutela lan gehien, gero arrek bapo jan dezaten. Ez txarto ulertu: ez daukagu, inondik inora, Athleticen gizezko taldekoek euren beharra betetzen ez dutenik adierazi gura, baina ezin ukatuzkoa da andrazkoen meritua handiagoa dela. Halakoxea dauka Aitziber Juaristik -*Tzibik*-, ere. Laster 29 urte bete-ko dituen getxoztar honek leku finkoa dauka beraren nebak, Iñigok, zuzentzen duen Athleticen. Taldeko kapitaina ere bada, Nerea Onaindiagaz batera; orain gitxi, biek aldi berean jaso zuten zurigorriek erreskan irabazitako hirugarren ligagatik dagokien trofeoa, euren profesioitasunaz inoiz baino berba gehiago egiten den honetan. Izan ere, Athleticen andreak musu-truk jokatzeko dute, eta bestelako beharretatik ateratzen dute bizitzeko. Tzibi bera zerbitzari ibiltzen da astebururo Fikako sagardotegian, eta hantxe egin dugu berriketaldi hau.

Tzibi Juaristi

Lehoi emearen orroak

Testua: **Unai Brea** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Noiztik jokatzeko duzu futboleko?

—Gogoratzeko gauza naizenetik, nik us- te. Txiki-txikitan mutilakaz jokatzeko nuen, ikastolan... betikoa. Gero futbito talde batean hasi nintzen, mutikoakaz ere bai, eta ondoren Bizkerre neska taldera joan nintzen. Handik Sondikara eta gero Leioara, hura Athletic bihurtu arte.

—Arrakasta handia lortzen zabilzate urterik urte, baina ikusleok gero eta asper- tuago gaude, ohitzen hasita edo?

—Uste dut emakumezkoen futbola eza- gutaraztea zela lehengo helburua, eta hori lortu egin da; orain, erakarri ditugun jarraitzaileei eutsi behar diegu. Ohitzea? Irabaztera inoiz ez zara ohitzen. Alderant- ziz: beharbada gero eta gehiago eskatuko digute, eta huts egiten hasiz gero zalantzak agertzen hasiko dira. Guk, behintzat, ba- daukagu gugaz edonora doan jarraitzaile multzo bat osatuta.

—Liga titulua ospatzen hainbesteko jen- detza egongo zela espero zenuten? Eta

bide batez esateko, hau da jende aurre- an ospatu duzuen lehenengoa...

—Eskatuta geneukan ospakizun hori, zelan edo halan; zeharka-edo, Athleticen aditzera emon genion ospakizun txukuna gura genuela. Parte hartzeari dagokionez, nik ez nekien zer itxaron behar genuen, egia esan. Uste nuen arrakasta izango zela, Athletic berbak erakargarritasun handia daukalako, baina zalantza sortzen zidaten

“Zeharka-edo, ospakizun txukuna gura genuela aditzera emon genion klubari”

egunak eta orduak. Martitzena arratsalde- ko zapietan, hara. Jende asko beharretik urten barik oraindik, eta abar. Ez ziren baldintzarik egokienak, baina jendeak beti edukiten du zeozer ospatzeko gogoia.

—Beharretik urtetea aipatu duzunez ge- ro... Jokalari guztiok urten zenuten ospa- kizunerako garaiz?

—Batzuk ozta-ozta ibili ziren, egia esanda.

—Modako gaia da orain, ea profesiona- lak izan behar zireten ala ez...

—Guk itxaropena daukagu inoiz zeozer izan ahal izango garela. Gizonak direnera hurbildu barik, noski. Azken batean, eskaintzen denaren parekoa eskatu behar da. Baliteke, nahikoa eskaintzeko gauza garenean, gu ere horretaz bizi ahal izatea. Gizezkoek ondasun handiak sortzen dituzte, beraz horretaz bizi daitezke.

—Hala ere, batek baino gehiagok esan du -taldeko jokalariek batek ere bai- solda- tan izan ezik profesionalak ziretela. Dirurik jaso barik ere, profesionalak be- zala egiten duzuela zeuen beharra...

—Eta egia da. Ez dugu kobratzen, baina gainerakoan dena berdin. Hara, badago beste desberdintasun bat: guk ezin dugu atsedean hartu futbolerako sasoiaren egote-



[TzibiJuaristi]

ko, lan egin behar dugu eta.

—Zeuen jarraitzaile multzoa daukazuela esan duzu lehen. Gizonezkoen jarraitzaileak ere badira, edo talde bakoitzak bereak dauzka?

—Taldea bakoitzak bere jarraitzaileak dauzka uste dut. Denok bat bagina, denok, beste barik, Athletic bagina, San Mamesera joaten direnetako asko Lezamara ere joango lirateke, Bilbao Athletic ikustera, edo Lasarrera gu ikustera. Baina Bilbao Athle-

egin, taldeak ere ez ziolako gehiegi lagundu. Baina zailagoa izan zen beste aurrelaria, Adriana, markatzea. Askoz jokalaria hobe da. Marigol ere ona da, baina batez ere komunikabideei begirako fitxaketa da; neska honek ospea lortu zuen mutilakaz jokatu gura zuela esan zuenean. Dena dela, ezin da ukatu Marigol futbol jokalaria denik. Hor dago, esaterako, Ronaldinha. Hori Ronaldoren neskalagun izatearren baino ez zuten fitxatu Rayo Valle-

—Denetik dago.

—Baina arerioek ere lan egin behar dute, ezta?

—Ez pentsa, ia talde guztietan ordaintzen da. Eta batzuetan oso ondo. Uste dut bi talde baino ez direla ezer ordaintzen ez dutenak, eta bat jaitsi egin da aurretik.

—Inoiz bururatu zaizu dena pikutara bialtzea?

—Batzuetan gogoia edukiten dut zer egingo dudan erabakitzeke, zirt edo zart. Ez da aukeraketa kontua jakina, hau da, ez da lanaren edo futbolaren arteko aukeraketa. Hori argi dago. Bizi egin behar da, pisua ordaindu, etab. Eta horrek zalantza asko sortzen ditu, futboleant segitu ala ez segitzearen arteko zalantzak.

—Entrenatzaileak partidu aurreko azalpenak ematen dizkizueenean -gatzelaniaz- zer berba erabiltzen du, “denak batera joango gara” bezalako esaldietan, “gu” adierazteko? Hau da, “todas juntas” edo “todos juntos” esaten du?

—Femeninoa erabiltzen du beti, ohituta dagoelako. Gizon talde bat entrenatzen hasiz gero, femeninoa erabiliko luke beharbada! (Barre). Berak emakume taldeak baino ez ditu zuzendu orain arte, eta uste dut ez lukeela gizonen entrenatzaile izan gura. Gugaz dagoenean, neska bat gehiago da.

—Zelangura, futbol mundua gizon mundua da oraindik ere...

—Zoritxarrez. Gainera, jokatzen dugun emakumeok marimutilak ei garenez...

—Horixe itaundu gura nizun hain zuzen. Ospe horrek oraindik dirau?

—Gero eta gitxiago. Nik, txikitan, ikamika asko eduki ditut horregatik. Ikastolan jokatzen nuenean, andereñoek marimutila esaten zidaten. Niri ez zait gustatzen inork zer egin behar dudan esatea, eta azkenean haiek izorratearren segitu nuela uste dut. Ez nago seguru futbola gustukoa nuen ala ez, beharbada haiek amorrarazteko jokatzen nuen. m

“Ez dugu kobratzen, baina gainerakoan profesionalak bezala jarduten dugu”

ticek bere ikusleak dauzka, guk bezala.

—Andrazkoen futbolaz berba egitean, ezinbestean etortzen dira gizonetikiko konparazioak...

—Hala da, eta ez litzateke izan behar. Gurea emakumezkoen futbola da, eta ahaztu gizonena. Arauak berdinak dira, baina... Ezin da konparatu. Ez futboleant, ez beste edozein kiroleran. Pentsa, emakumezko munduko tenis jokalaririk onena gizonetikiko bostehungarrenaren parekoa dela esaten da. Begiak dituen edonor konparatzen da gizon baten eta andra baten gorputzak ez direla berdinak indarrari dagokionez. Beharbada teknikari dago-kionez ez dago horrenbesteko aldea. Baina

canokoeak, futboleant oso txarra da eta.

—Eta halako fitxaketak onak dira emakumezkoen futboleantzat?

—Baietz uste dut. Emakumezkoen futbolarik gehien behar duen gauzetako bat publikitatea da, izan ere.

—Athletic izenak pisu handia dauka. Damutu egin zaizue inoiz?

—Niretzat ez du pisurik.

—Baina desabantailaren bat ere edukiko du, abantailakaz batera...

—Abantailak dira askoz jende gehiago edukitea inguruan, eta klub handi batean egotea. Azpiegitura aldetik, eta guztiagatik. Desabantailak? Egunero entrenatu beharrak mugatu egiten zaitu. Ikasten da-

“Beti konparatzen dira gizonetikoen eta emakumezkoen futbola, eta hori ezin da egin”

indarrari dagokionez bai. Ni atzelaria naiz, eta Lehen Mailako gizonetik ahulenak nik baino askoz indar handiagoa dauka.

—Bartzelonan irabazi zenuten liga. Bartzelonatik egin du, hain zuzen, aurtengo fitxaketarik mediatikoena: Maribel Dominguez, Marigol. Ez dakit zuri egokitu zitzaizun hari markaketa egitea...

—Bai, niri eta Martari.

—Eta esaten duten bezain ona da?

—Partidu hartan ez zuen gauza handirik

bilenak ezin du lanik bilatu arratsalderako, entrenamendua daukalako. Oso berandu arte ez zauden lanpostua eduki behar duzu, arratsaldeko 5:30ean urtetan utzi behar dizute... Eta azkenean, inork ez dizu esaten Athleticen jokatzearen lan gitxiago egin dezakezunik. Nahikoa daukagu Suediara joateko astebeteko baimena emoteagaz, esaterako.

—Lana eta futbola buztartzeko arazo handiak dauzkan nonor dago zuen taldean?

BAPIRUKE

UDALEKU IREKIAK
COLONIAS ABIERTAS
UDAN ERE **EUSKARAZ!!**

NORI ZUZENDUA: 5-12 URTE BITARTEKO UME EUSKALDUNEI

PREZIOA:

1. TXANDA: BAZKIDEEK 42€ / EZ BAZKIDEEK 55€
2. ETA 3. TXANDAK: BAZKIDEEK 80€ / EZ BAZKIDEEK 105€
(PREZIOA TXANDA BAKOITZARI DAGOKIO)

NOIZ:

TXANDA 1: EKAINA 23-30
TXANDA 2: UZTAILA 1-15
TXANDA 3: UZTAILA 18-29

TOKIA:

ALGORTA ETA ERROMON

IZENA EMATEKO EPEA:


MAIATZAREN 3TIK
EKAINAREN 10ERA ARTE (GOIZEAN)
BIZARRA LEPOAN EUSKARA ELKARTEA
KARITATE KALEA 1, 10. BULEGOA
48990-ALGORTA
TEL: 944 914 357 / 675 713 967




Antolatzailea / Organizatzailea:



Laguntzailea / Colaboratzailea:





Forma garbiak

Orrialdeotara ekarri ditugun argazkiak ikusi eta gero segituan igarriko duzue zeintzuk diren Igor Ortega (Portugaletxe, 1975) egilearen gustu fotografikoak. Bai naturak, bai hiri-paisaiek irudikatzen dituzten oharkabeko forma *garbiak* jasotzen trebea da Igor. Jeneralean begi arruntek, parean eduki arren, ikusten ez dituzten forma eder horiek. Argiak, itzalak, islak, lerroak, geometriak... horiexek dira bere lanen ezaugarriak. Goza itzazu.

Argazkiak: **Igor Ortega**







zineeskola

Oskar Fernandez

Zinema eta aberastasuna

Gizarte kapitalistaren ezaugarriak arlo eta eremu guztietan islatzen dira, eta jakina, zinema ez da salbuespena izan. Zinema zarpigarren artea da, eta gaur egun zalantza hau ez litzateke sortu behar, askotan pantailetara oso film txarrak alleगत arren. Hala ere, hau arte guztietan gertatzen da: literaturan, musikan, pinturan, eskulturan... Baina, zinemak besteen aldera garrantzi berezia dauka. Bere lanak oso erraz helarazten dira jendearengana. Eta honek gaur eguneko sistema soziopolitikoarentzat abantail garrantzitsu bi ditu: batetik, etekin ekonomiko izugarriak lortzen dira; eta bestetik, gizarte honek pulsatzen dituen baloreak, jarrerak eta ereduak era "atsegin" eta eraginkorren zabaltzen dira. Hau guztia mezuarekin batera ezkutaturik joaten da.

Baina hainbat eta film batzuk oso onak, interesgarriak eta ereduagarriak dira, eta jende gehiago ikusiko balitu hobea izango litzateke bakoitzaren garapenera pertsonalerako. Film hauen bidez plazer estetiko arlo guztietan sentituko dugu, istorio interesgarriak aditasun handiz dastatuko ditugu, intelektualki film hauek oso aberatsak dira eta ezagupen berriak ikasiko ditugu. Beraz zergatik izan behar dira hain garestiak zinemarako sarrerak, filmak ondasun kulturala, artistikoa eta intelektuala baldin badira? Erantzuna idazki honen lehenengo esaldiaren barruan dago. Zarpigarren artea, ia sortu zenetik diru iturri oparo bezala erabilia izan da. Ekoizleek, aktore ospetsuek, zine-aretoen jabeek, zuzendari ospetsuek eta beste horrenbeste dirutza ikaragarria irabazi ahal izateko zinema-sarrerek oso garestiak izan behar dute, eta gainera berdin ordaindu behar da film on bat edo txar bat ikusteagatik. Hau amaitu behar da. Eta beste irizpide batzuk kontuan hartu behar dira. Haien artean artea jendearengandik sortzen dela eta jendearengana dohanik itzuli behar dela. 4

Aurtengoaren akabua

100dik gora film pantailaratu eta 15.000 ikusle batu ostean, urria arte ez dago zine gehiago

Hurrengo urria arte zuri eta mutu egongo dira Getxo Antzokiko zinema pantailak. Getxoko kultur etxeak prestatzen duen aurtengo zinema denboraldiak hurrengo filmakaz harrapatuko ditu azkenengo ikus-entzuleak: *En el mundo a cada rato* (Zine-Kluba, hilak 25), *Las tortugas tambien vuelan* (Cinema Paradiso, maiatzak 27) eta *Bob Esponja* (Haur zinea, hilak 29).

Kultur Etxeko zinemako arduradun Iñaki Elorriagak azaldu digun legez, Zine-Klubaren barruan 45 bat film eman dira eta horiek ikustera 6.500 lagun baino gehiago bertaratu dira. Cinema Paradiso egitasmoak azpitituludun jatorrizko bertsioan eskaini dituen 30 bat pelikulek 2.000 ikus-entzuletik gora erakarri dituzte. Eta domeketako Haur Zineko 41 filmak gozatzera 6.200 ume hurbildu dira. Zine-

«Ikusleak galdu dira Areetako Gran Cinemaren itxiera dela-eta»

mazale gehien bildu dituzten filmak hauek izan dira: *Diarios de motocicleta*, *Maria Ilena eres de Gracia*, *Fahrenheit 9/11*, *Suit Habana*, *Doraemon gladiadorea* eta *Los Increibles*. Haur Zinearen eskaintzari buruz Elorriagak zera dio: "euskaratutako film guztiak ematen ahalegintzen



Gran Ciemako proiektore zaharra

gara, ikusleak filmaren arabera doaz zinemara, bizkuntza ez da traba, euskarazko filmek badute audientzia, adb.: Doraemon gladiadorea pelikula hilabeteke ikusiena izan zen." Halaber, umeen ohiturak aldatu direla ere azaldu du: "lehen goizeko emanaldia gehiago etortzen ziren, orain ez hainbeste". Bestalde, Gran Cinemaren itxierak guztiz txarrerako izan dela diosku Elorriagak: "Agian Algortana baino ikusle gehiago hurrevatzen ziren, orain publiko hori galdu egin dugu Algortanaino etortzea ez delako hain eroso". Amaitzeko, zinema programaziora 12.000 euro bideratzen ditu Kultur Etxeak. m

Ez galdu > *Turtles can fly*

• Non: Getxo Antzokia • Noiz: maiatzak 27, barikua • Ordua: 22:00 • Cinema Paradiso



Lan honek (euskaraz, *Dordokek hegaz egin dezakete*), lazko Donostiako Zinemaldian Urrezko Mazkorra irabazi zuen. Film honen gidoilaria eta zuzendaria Bahman Gobadi kurdua da eta hauxe da berak zuzendu duen hirugarren luzea. Lehenengoarekin -2000. urtean ekoiztutakoa- Canneseko Nazioarteko Zinemaldian Urrezko Kamera saria eskuratu zuen, baita Fipresci erakundeak ematen duen sari garrantzitsua ere. Aipagarria da Gobadi Kiarostami zuzendariarekin lan egin duela, bere laguntzailea izanik. Film liluragarri honetan Iraken aurkako inbasioa hasi baino lehenago, Kurdistango herri txiker bateko biztanleek bizi dituzten gorabeherak maitasun eta zehaztasun handiz kontatzen dizkigu. Herriko jendea antena paraboliko baten bila dabil Ameriketako Estatu Batuak hasi duen inbasioaren berri izateko.

Canal Blues

Getxoko Blues Jaialdian joko du laukote getxoztarrak ekainaren 10ean



The Chief Clearwater-en aurretik joko du Getxoko taldeak. Informazio gehiago: www.canalblues.com


Canal Blues taldea bi getxoztarrek, getxoz-tartutako Portugaleteko batek eta astrabuduar batek osatzen dute gaur egun: Jose Merodiok (baxua), Luis Alberto Garciak (gitarra), Gor-ka Bringasek (abeslari eta gitarra) eta Isidoro Redondok (bateria). Taldea orain dela 4 bat urte sortu zuten Bringasek, Redondok eta beste lagun batek *Ayre* taldearen errautsetatik, eta gerora Merodio eta Garcia batu zitzaizkien. Bringasek esan digun legez, "taldearen izena bat-batean aukeratu behar izan genuen: Cadiz aldean geunden oporretan eta kontzertutxoaren baterako aukera irten zitekeela-eta tresna denak eraman genituen; hala, jotzeko deitu

ziguten eta ez geneukan izenik, benaz, arineketan erabaki behar izan genuen". Autoeditatutako *No naci pa trabajar* gaztelarazko 9 abestiz eta Rollingen *Dead Flowers* kantaren bertsioaz osatutako diskoa kaleratu zuten iaz. Aurten Getxoko Nazioarteko Blues Jaialdian jardungo du talde getxoztarrak (ekainak 10) eta Bringasek gonbidapena pozarren hartu dutela diosku: "Urtetan behetik gozatu ostean, aurten ohol-tza gainean egoteko ilusioa eta ametsa beteko dira". Euren doinuetan blues estiloa nabarmentzen bada ere, rock, funky, edota swingaren iturrietatik ere edaten dute. m

Harremanetarako: 670 039 869

diskoak

Bleed like me
Garbage
Warner



Shirley Manson-en taldeak bete-betean asmatu zuen lehenengo disko izenkidea kaleratu zuenean: rock elektronikoa. Alabaina, ondorengo biek (*Version 2.0* eta *Beautiful garbage*), beheranzko bidea erakutsi zuten. Horregatik, laugarren disko bat egiteak beldurra ematen zuen. Hala ere, irtenbidea topatu dute krisialditik ateratzeko: gitarrak zorrotzu eta espiritu punkagoa bilatu.

Los jovenes mueren...
Deluxe
UMushroom Pillow



Xel López (Deluxe-ko taldekide bakarra) Espainiako pop berriaren ugazaba dela diote eta bere hirugarren disko hau (gaztelaniaz egin duen lehendabizikoa), pop ez-komertzialaren itxaropena eta salbatzailea. Ez ete da erantzukizun handiegia 27 urteko A Coruña gazte honentzat? Lan honetan elektronikaz ahaztu egin da, eta rock doinuetan ipini du arreta. Testuetan heldutasunerako bideari ekin dio.

Ilargi handi, zuri zarae
Zura
Metak



Dut taldeagaz eta Anari abeslariagaz ibili zen Xabi Strubell hondarbitarrak egitasmo berri hau aurkezten digu. Federico Garcia Lorca, Lauaxeta eta Nikolas Lekuona lotzen ditu CD+liburu+DVD euskarriaren kaleratu duen proiektu dotore eta erakar-garri honek. Gerra Zibilak hildako hiru sortzaile horiei omenaldia ere bada. Xabik berak idatzitako bost abesti iradokizale dauzka-gu entzungai diskoan.

Jazzaldia > aurrerapena



Uztailaren 1etik 5era egingo den Getxoko XXIX. Nazioarteko Jazzaldian joko duten taldeen berri aurreratu du Kultur Etxeak. Behin-behineko egitarauaren

itzal handiko musikariak honakoak izango dira: John Scofield gitarra jole estatubatuarra, Richard Galliano akordeoi jole frantziarra, Maria João abeslari portugaldarra, eta Baldo Martinez buru daukan Proyecto Miño. Halaber, aipamen berezia merezi dute Euskal lurralde ezberdinetako musikariek osatzen duten Pirineos Jazz Orkestrak eta Teresa Zabalza Quintet euskal taldeak. Kontzertuak ohiko agertokietan egingo dira: Biotz Alai eta Getxo Antzokiko plazetan; eta Jam Sessions-ak Piper's Irish Pubean.

hitzarmena > Leioa eta Baiona

Euskadi Akitania Hitzarmenaren bitartez, Leioako eta Baionako kontserbatorioek bi urterako hitzarmena sinatu dute. Horren bidez, aurten leioaztarrek Baionan emanaldiak emango dituzte (maiatzak 28, 20:30) eta Baionakoek Leioan eskainiko dituzte kontzertuak (azaroan). Datorren urtean, irakasleen elkar trukea egingo dute, koroko zuzendariena hain zuzen. Horrez gain, beste kontzertu batzuk ere hitzartu dituzte bai iparraldean, bai hegoaldean. Leioako Kontserbatorioko zuzendari Balentin Atxotegik pozik azaldu digunez, "Baionako kontserbatorioa handia da eta inportantea, arko ikasiko dugu, eta ikasle gazteen arteko truke kulturala ere bultzatzen du".

poemakutunak

Egilea: Bitoriano Gandiaga

Kezkatzen bainau

Kezkatzen bait nau herstutzeraino neure Herriaren zoriak. Hautsiak ditu arraunak eta arrakak ditu ontziak. Zenbait lamina bihurtu ziren, zenbait badira arraiak. Baina zenbaitek euskaldun nahi du ta harenak dira larriak. Iraun nahi eta ezin jarraitu ihes dagio biziak. Agonia honen laborriz dauzkat ixurbatuta erraiak.



[liburuak]

Klasikoen Gordailua

Erdi Arotik 1936ko gerra bitartean ekoizitako euskarazko lanak **sarean ipini ditu Susak**

Susa argitaletxearen ekimenez eta Patxi Salaberriren zuzendaritzapean euskal literatura klasikoa biltzen duen Klasikoen Gordailua sarean ipini dute. Euskal literaturako lehen agerpenetatik 1936ko gerrara arte egindako euskarazko literatur testuak zein liburuak biltzen ditu Gordailuak. Arduradunek honela aurkeztu dute: *“Honen atzean bi ahaleginen batuketa dago: Euskal Testuen Gordailua, bate-tik, eta Susa literatur argitaletxea, bestetik. Patxi Salaberrri Muñoa idazle eta irakasleak egin eta zuzendu duen eta azken urteotan geldirik izan den Euskal Testuen Gordailua dago oinarrian; eta bestetik Susa literatur argitaletxeak Armiarma literatur atariaren oinarritzko zutabe ikusten zuen euskal literaturako testu klasikoak sarean jartzearen asmoa, eta asmo bien batzetik sortu da Klasikoen Gordailua”*.

«50 liburutik gora, izen handiko 120 euskal idazle baino gehiago, sarean doan»

Berrehun liburu baino gehiago irakurtzeko aukera ipini dute sarean, doan. Euskal literaturako itzal handiak batu dira bertan: Etxepare, Axular, Agosti Xaho, Kirikiño, Lauaxeta, Lizardi, Oihenart, R. M. Azkue, Toribio Alzaga... eta abar luze-luze bat. Hala ere, batzuk kanpoan geratu dira baina arduradunek



R. M. Azkue

Gordailua handituko dutelako hitza eman dute, urtero 50 liburu edota testu berri sartzeko asmoa daukatela. Horrez gainera, antzina-ko euskaraz idatzitako liburuak eguneratu egin dituzte, gaurko irakurleek hobeto irakur eta uler ditzaten. Bestalde, herri literaturari ere merezi duen lekua egiten dio Klasikoen Gordailuak: bertsoak, kantak, baladak, esaera zaharrak... batu dituzte.

Beraz, teknologia berriek lekua egin diete euskal “klasikoek”, orain gaur egungo irakurleek sareko euskal klasikoen atea jotzea besterik ez dugu espero. m

www.armiarma.com/klasikoak

liburuak



Berdin dio
Agota Kristof
Alberdania

Eskarne Mujikak 25 kontakizun labor biltzen dituen Kristofen azkenengo liburu hau itzuli du. Estilo xumea dauka idazle horrek: ez du dotoreziarik biltzen berbetan, deskripzioak ez ditu gustuko, eta esaldiak laburrak eta biluziak dira. Kristofek eritimoa arintzen du horrela, eta oso erraz irakurtzen da, ia konturatu barik.



Mende berriko ipuinak
Batzuen artean
Erein

Mari Jose Olaziregi literatur kritikariak hamalau euskal idazleren 18 ipuin hautatu ditu antologia hau osatzeko. Ipuinok berriak eta laburrak dira. Liburu honek ederto islatzen du gaur egungo euskal ipuingintzak daukan aniztasuna eta kalitatea. Orain gaztelaniazko edizioa prestatzen dabilza.

[kirola]

Kirik kooperatiba

Hamabost urte daroaz Getxoko elkarteak kirol eta kultur ekitaldiak antolatzen eta bultzatzen



Kirik Kooperatibako kideak. Harremanetarako: 94 491 17 46

Kirik kooperatiba 1990ean sortu zuen Getxoko eta Leioako Lanbide Heziketarako Zentroko kirol begiraleen lantegiko ikasle eta irakasle talde batek. Gaur egun 4 dira elkarte-ko bazkideak eta lanaldi osoan urtean zehar batezbeste 15 begirale dabilza bertan behar-ean. Eskola Kiroleko jarduerak, kirol desberdinetako txapelketak, abentura-turismo eta kirolak, nagusientzako gimnasia, dantza, hitzaldiak... kirol eta kultur ekitaldi zerranda luzea antolatzen eta kudeatzen du Kirikek. Jarduera hauek guztiak 13 urtetik gorako lagun-taldee zuzenduta daude, eta Kirikeko kide Jon Rodriguezek azaldu moduan, *“partehartzaileen artean lagun gehien batzen duen adin tarte 16 urtetik 25 urtera bitartekoa da”*. Urtean zehar 50dik gora elkarte, udal (Getxo, Bakio, Bilbo), ikastetxe eta abarrentzako ekimenak antolatzen dituzte. Aurten gainera

aterpetxe baten kudeaketa ere bere ardurapean hartu du Kirikek, Morgako (Busturialdea) Meakaur auzoan dago eta ekainerako-edo espero dute atek zabaltzea: 62 pertsonentzako lekua, logela egokituak gurgil-aulkien erabilerarako, kongresu aretoa, berogailu zentrala, taberna, jantoki handia, telebista, igogailua...

Hondartza Txapelketetako finalak laster

Urte sasoi honetan Ereagako hondartzan txapelketak prestatzen 14 urte daroaz Kirikek, eta aurtengo txapelketetako finalak hilaren 28an izango dira. Garai batean atletismo, herri-kirolak edota piraguismoko lehiaketak ere antolatzen zituzten; azken urteotan, ostera, boleibol-ak eta futbolarak hartu dute garrantzia. Aurten boleiboleko 14 talde eta futboleko 28 ibili dira lehian, 250 partehartzailetik gora. m

Informazio gehiago: www.kirik.com

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa
Kirol moda



350 m²
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXEKO ELEKTROTRESNEN KON-
SERVITEC

Lacofris, s.l.

• MARKA GUZTIAK
• 24 ORDUTAN ERANTZU-
NA
• 3 HILABETERO GARANTZIA
• 25 URTEZ ZURE ZERBIT-
ZUAN

& 94 430 52 00 Kasune, 18 · ALGORTA

BEROGAILU ETA ITURGINTZA

T: 430
HIRURAK

Sarrikobaso 15

Gaizka Escudero > sukaldaria

“Uste dut egile sukaldaritza deritzon hori apaintzea baino ez dela”



Gaizka Escudero, Basalbo jatetxe berrian

Gaizka Escudero algortarra ondo ezagun duzue aldizkari honen irakurleok, berak idazten du-eta gure hamabosteroko errezeta. Orain jatetxea ireki berri du Getxoko Basalbo baserrian, Martiturri inguruan, hainbat urtez bere etxea izan den Villabotas -eta beraz, hirigunea- utziz. Oso lanpetuta topatu dugu negozio berria bide onean ipini guran, baina beti edukiten du tartetxo bat guretzat. Eskerrik asko, Gaizka.

—Basalbo ireki berri duzu bederatzi urtez Villabotasen egon ostean. Aldaketa handia izan da?

—Bai.

—Eta zer asmo daukazu jatetxe berrian?

—Neuk ere ez dakit oso ondo! (Barre). Momentuz, tamaina hartzen. Herenegun ireki genuen eta... Zeozer aldatzeko asmoa daukat, baina konturatu egin naiz ez dela hain erraza. Beraz, Villabotasekoari eutsiko diot hasieran, eta apurka-apurka gauza berriak sartuz joan. Ez da erraza. Momentuz, lekua

nahiko desberdina da, eta janaria ere dotoreagoa, txukunagoa izatea gura dut. Garestiagoa ere bai, noski.

—Zein izan da zure eskola sukaldaritzan?

—Leioako Ostalaritza Eskola, beste askorena bezala.

—Eta bertatik urten duzuen guztiok daukazue estilo bera?

—Ez, bakoitzak berea dauka. Han oinarria ikasten da, eta gero bakoitzak bere bidea egiten du. Nik uste dut sukaldari onak urten dutela Leioatik; ni ibili nintzen garaian, asko

ikasten zen. Orain gitxi berriro egon naiz, eta ez nago hain seguru oraingoak hain prestatuta urtetan duten.

—Zer sukaldaritza mota egiten duzu? Orain modan dago, antza, egile sukaldaritza deritzon hori...

—Nik horrelakorik ez. Tradiziozalea izan naiz beti. Horixe da jendeak hemen topatuko duena, leku politaz gain: arrain ona, mendrezka entsalada, txirlak marinel erara, perretxiko nahastura...

«Sukaldean langile asko edukitea errazagoa da platera 6.000 pezetatan kobratuz»

—Aspalditik neukan norbaiteri hau itauntzeko gogo: tradizioaren barruan ere egin daiteke egile sukaldaritza, hau da, existitzen dira egile txilistak, berbarako?

—Hara, orain txilista batzuei pare bat apaingarri ipinita, badira egile txilistak. Baina txilistak berdinak dira.

—Zer da orduan, egile sukaldaritza?

—(Oso luze pentsatu eta gero) Nik uste dut apaintzea baino ez dela. Edo hala da hein handia batean behintzat. Eta gero, esku pilo bat edukitea sukaldean behar egiteko, eta denbora. Baina batez ere apaintzea.

—Hala ere, denok bilatzen dituzue errezeta berriak, ezta?

—Hara, nik neuk ez daukat denborarik. Bederatzi urtez bakarrik egon naiz Villabotaseko sukaldean, eta ezin gauza handiegirik asmatu. Ea orain has naitekeen.

—Anoa handiak ala txikiak?

—Handiak, handiak.

—Eta sukaldeak?

—Handia ere bai. Eta sukaldari askogaz, mila gauza egin behar dira eta. Baina jakina, hori errazagoa da platera sei mila pezetatan kobratzen denean. m

Esakere > “Ona zagoz zu itsuari argi egiteko”



Irudia: Gorka Vazquez

Gaur eguneko bizimoduk ezaugarri asko dekoz: erabaki asko hartu, bizkor ibilli, etorkizunerako prepara, asko ikisi, behar asko egin, oporrratan batera eta bestera ibilli... Danok deku buru leporaiño sartute geure gauzatan, eta jaramon gitxi egiten dotsegu garikon konturi... eta aldi batzuten garikok merezi daude, bai, apur bet adi egote, guri gitxi kostaten dakun pentsamentu bet edo detaletxu bet mesede ixen leite eta, nonontzako.

Esakera hau R.M. Azkuek baturiko da, eta beran “Euskalerriaren Yakintza” behar handin topako dozue.

Gureberbakere59

BERBA JATOR BATZUK (XIII)

Berbakere 52n eta 56n lez, hemen gure izenondo edo adjektibo batzuk ikusten segiduko dogu, gure eskualdeko euskeran gauzak eta pertsonak ZELAU(K) -Zelako(ak)- direzen esateko erabilten direzenak.

Testua: **Xabi Bilbao**

• **ugerdo:** pertsona lohie (ugerra edo lohitasune dekona).

—Zelan páraten zara máhainen hórekaz esku lóhiekaz? Ezatez ugerdo ixen, ta zoaz garbituten ointxe!

Ugerra berbek esangure bat baino gehiau deko: lohitasune, zikintasune esateko, bai eta herdoile ('óxido') esateko erabilten da:

—Ugertute dau, ugerrak yanta dau hori burni eta erraz apúrtuko da.

Eta sustantzi gitxiko auriri bere auri ugerma esaten dako:

—Guardasola éron-éz éron péntsatén nau, ze auri ugerru baño eztaú bóttaten.

• **zapazto:** ule luzea eta ganorabakoa dekon pertsona.

—Lau zapazto agertu dakoz eta dekon

diru émoteko eskatu.

• **zarratu:** tarterik ez dekona.

—Baso zarrature sartu da katu eta nok topa oráin!

—Zarratu-zarratu bóttaten dau auri: aurreko etxe bere ezta ikusten.

• **zentzunbako:** zentzunik ez dekona.

—Zéozér géhiau ikisi beharko dozu, lau gauza zentzunbako imínte eztozu pásako esámiñe.

—Zúlau beste zentzunbakokaz alkártuten bázara arréglata zagoz!

• **zuhur:** buru argi edo bizkor dekon pertsona.

—Sarri pentsa lei erdi lo daule, baia ondo zuhurre da hau ume.

—Merke egon da gaur lebatz frésko, baia jénte zuhur ibil da eta dana éron daude.

I

Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza T: 4302345

Algorta

san inazio
autoeskola
1951n sortua

LCC - A1 - A - B - BTP
baimenak

Telletxe, 13 / Tel. 94 460 00 45
ALGORTA

Errotalde
ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

GAVRKO



GIZONENTZAKO
MODA

Telletxe 5
ALGORTA
T: 4607084

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA



gaizka escudero / basalbokoa

Pasta entsalada

Udaren atarian gaude eta gorputzak jaki fresko eta arinagoak eskatzen dizkigu bada entsalada on bat baino plater egokiagorik urteko sasoi berotsu honetarako? Oraingoan proposatzen dizuedan hau, plater bakarra izan daiteke udako edozein egunetarako. Gainera, hamar minutu baino ez dira behar hau prestatzeko. Hasteko, egosi oilasko bularkia bat eta makarroi ale batzuk. Bestetik, platerean, letxuga, tomatea (uda bere sasoi da), azenario txikitua, arto egosi aleak, tipula eta sagar zati batzuk (*piña* ere izan daiteke) jarri. Gero, saltsa egingo dugu. Horretarako nahastu gustura, mahonesa, Dijongo mostaza, Perrys saltsa apur bat eta tabasko tanta batzuk. Hau guztia pasta eta oilaskoarekin nahastu. Azkenik oliba olioia, gatza eta ozpin apur bat bota. On egin. ^m

osagaiak

pasta • oilasko bularkia • sagarra • letxuga • artoa • azenarioa • tomatea
mahonesa • Dijon-eko mostaza • Perrys saltsa
oliba olioia • gatza • ozpina



itsaso arana / jolastoki-koa

Tenerifeko ardaoak

Gaur egun Estatuan badira 54 jatorri izendapen (erderaz D.O.). Ardao leku gehiagotan egiten da baina ez dute jatorri izendapenik lortu. Oraingoan Abona D.O. ezezaguna ikusiko dugu. Tenerife irlako hegoaldean dago eta Adeje, Arona, Villaflor, San Miguel Arico, Fasnia eta San Miguel de Abona hartzen ditu izendapen honek. Baltzak eta gorriak ere egiten diren arren, ezagunenak ardao zuria dira. Mahats motari dagokionez, zurien artean, *listan zuria*, *verdello*, *malvasia*, *sabro* eta *bermejuelo* dira landatuenak; baltzen artean, *listan beltza* eta *negramoll*.

Ardao zuriek jantzi distiratsua izaten dute; arinak, sikuak, alaiak eta dotoreak izaten dira. ^m

Bodegak eta ardaoak:

- *Coop. Cumbres de Abona.*
—Flor de Chasna, zuria
—Viña Peraza Ecológico, zuria
- *La Ortigosa SL.*
—Leña Blanca, zuria



Malvasia mahats mota

Urritxa jatetxea

Nazioarteko eta euskal sukaldaritza



Alex Kortazar, hurritz hostoakaz apainduta dagoen jantokian

Zortzi-hamar urte daroaz ostalaritzan. Catering enpresatan, oturuntzatan eta itsasontzitan behar egin du, "*baina nekatu naiz besteentzat behar egiten*", diosku Alex Kortazarrek. 32 urteko sukaldari algortar honek Urritxa izeneko jatetxea ireki du orain dela oso gutxi, apirilaren erdialdean hain zuzen. Lehen ere kafetegia eta jatetxea bazen, "*baina inork ez du jakin etekinik ateratzen*". Eraberritu ostean, Alexek bezeroa pozik ateratzea gura du, "*negozioa errentagarri bihurtzeko denbora egongo da*".

Solairu bi dauzka: behekoan kafetegia dago, eta bertan gozariak, otartekoak, pintxoak, anoak, sandwichak, kafe bereziak eta koktelak har daitezke; goikoan, berriz, sukaldia eta 40-50 lagunentzako lekua

daukan jantoki ikusgarria paratu dituzte. Nazioarteko eta betiko euskal sukaldaritza prestatzen ditu Urritxako sukaldariak: "*Hala ere, hasi naiz nik neuk sortutako platerenak menu berezian zein kartan sartzen. Horixe da hain zuzen indartu gura dudana: egile-sukaldaritza*". Labeldun okelak eta asteburuetan itsaskiak goraiatu dizkigu Kortazarrek. Ardaoek ere garrantzia daukate: "*Gai hori oso landuta dago eta upeltegi bikaina daukat*". 8,50 euroren truke eguneko menua jan daiteke; bereziak, berriz, 20 euro balio du, eta kartaren prezioa "*arrazoizkoa da*". ^m

URRITXA JATETXEA

Estartetxe, 5 (Ikea eraikina) - Leioa
T. 94 400 43 93

[nonjan]

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • TEL.: 94 464 41 25

AREETA



Asado r



- Zabalik egunero
- Eguneroko menuak
- Enpresa menuak
- Menuak nornberaren gus-tura
- Egunero karta berezia
- Gauetz dastatzeko menua astelehenetik- ostegunera
- Jaun hartze bazkariak

Aretxondo 14

Algortako Portu Zaharra / Getxo
Erreserbak: 94 491 25 93

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA
ezagutzen al duzu?

herriko pintxorik
onenak ditugu
etorri eta probatu!!

Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA

eleizalde
taberna
eguneko menua

Kresaltxu 13
T: 94 602 14 33 - ERROMO-GETXO

Zirikaldai

JOKIN GARATE BAYO Neguriko Etorbidea 9 T: 491 14 87 48990 NEGURI
KIMETZ GARATE AZURMENDI Aingeruaren etorb. 4B (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87 48990 GETXO

KONTXI
ZUZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,
Pate eta Gaztaietan!!

Alangobarri, 10 ALGORTA
T: 94 491 02 93

gOZOLABEA

galdaretxe

• Maidagan, 35 GETXO Tel. 94 491 11 25
• Mayor, 17 AREETA Tel. 94 464 77 29
• Sabino Arana, 67 LEIOA Tel. 94 464 40 58
• Telletxe, 11 ALGORTA Tel. 94 460 32 14
• Sabino Arana, 9 SOPELA Tel. 94 676 11 01



ITXASGANE
prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)
T:94 430 69 42 /ALGORTA

VIEJO



kopak eta giro jatorra

Alangobarri, 4 Tel. 94 460 30 03
ALGORTA

OLATXO
altzariak
dekorazio-opariak

Andres Larrazabal, 11 AREEETA T.: 94 464 89 94
Juan Bautista Zabala, 5 ALGORTA T.: 94 491 13 94

GOIZEAN



“Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Litxarriak

Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
T: 430 22 13 T: 460 02 88
GETXO ALGORTA

Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

[horoskopoa]

<p>URA t</p>  <p>(Abenduak 21 urtarrilak 19) Koilarari eraginez, gira eta bira etengabe, kafesnea larregi nahasten duzu. Diotenez, hori sexu harreman gutxi daukatenez egiten ei dute. Hala ete da? Konponbidea lehenbailehen aurkitzen ez baduzu, kafea izoztu egingo zaizu.</p>	<p>OTSOA t</p>  <p>(Urtarrilak 20 otsailak 18) Gauzak konpontzen oso abila zara, Otsoa. Alabaina aurrekoan izandako eztabaida horrek ez dauka konponbiderik. Arrazoa ez daukazula badakizu eta barkamena eskatu beharko diozu. Ezetz? Ondorio latzak jasan beharko dituzu orduan.</p>	<p>ADARRA t</p>  <p>(Otsailak 19 martxoak 20) Zorte txarra daukazula diozu, eta zeure bizitzan behintzat Murphyren Legea indarrean dagoela. Zenbateraino gogoko duzu biktimaren papera egitea! Zu baino zorte txarrao daukanik ere jaiotako mundu honetan, ala ez?</p>
<p>AITZURRA t</p>  <p>(Martxoak 21 apirilak 19) Erretzeari utziz gero, larrutan egin osten ez duzula jakingo zer egin? Lanari berriro ekin! Gainera, udarako sasoi onean egon gura duzula diozu. Bada, ba al da ariketa fisiko hoberik?</p>	<p>HOSTOA t</p>  <p>(Apirilak 20 maiatzak 19) Mingarria da besteakaz berbetan ikustea eta zuri jaramonik ez egitea. Zergatik ez zara zu berarengana hurbiltzen? Baliteke berak ere berdin pentsatzea. Jaramon egin barrik jarraitzen badu, orduan ezer giti balio du.</p>	<p>EGUZKIA t</p>  <p>(Maiatzak 20 ekainak 18) Azalpenak eta arrazoiak etzuan baino lehen muturtzen zara. Haserretzen zarenean zuzag berba egiteko gai denik ez da oraindik jaiotako! Gero, damutu egiten zara, baina... Hurrengoan, lehenengo entzun eta gero gerokoak.</p>
<p>GARIA t</p>  <p>(Ekainak 19 uztailak 18) Zuri egitea gura ez duzuna, ez besteei opa. Noiz ikasiko duzu hori? Berandu baino lehen ikasi beharko zenuke, bestela bihotz txarrekoa zarela pentsatuko dute. Ekainaren ekinez bakarrik lor liteke ezina egitea.</p>	<p>LASTOA t</p>  <p>(Uztailak 19 abuztuak 17) Ez zara txisteak kontatzen iaioa. Hala ere, beti baten bar kontatu behar. Batzuk gatz eta piperragaz sortu dira, baina zu ez, onar ezazu behingoz! Dena dela, beste bertute asko daukazazu.</p>	<p>IRATZEA t</p>  <p>(Abuztuak 18 irailak 16) Amets zatok jada nigana... Urteetan amestutako hori betetzear dago, eta ez zaude pozik? Zergatik? Amets hori gauzatu, beste bat betetzeko lanei hasieratik ekin beharko diezulako berriro? Gutxienez baten helmuga erdietsi duzu.</p>
<p>META t</p>  <p>(Irailak 17 urriak 16) Hondar zuria, ur gardenak, palmondoen gerizpea, maitea... Paradisu hori urrun dago. Alabaina, etxeko zulorik ilunena ere bihurtz daiteke paradisu, eta plazera edozein kale kantoitan osten daiteke. Konpania da gakoa, ez lekua.</p>	<p>HAZIA t</p>  <p>(Urriak 17 azaroak 15) Lurrak birak emateari utziko balio ere, zu ez zinateke konturatuko! Zeure zilborrari begira denbora larregi ematen duzuz! Ba al dakizu Bushen irabazi zituelako AEBko hauteskundeak? Zu baino txarrao bizi denik ere bada.</p>	<p>NEGUA t</p>  <p>(Azaroak 16 abenduak 20) Esaiozu egia. Esaiozu bolada txarra pasatzen zabilzala. Esaiozu bere laguntza behar duzula. Esaiozu. Eta haren laguntzagaz aurrera egitea lortuko duzuz. Eutsi goiari! Bihar ere egunak argituko du-eta. Garai onak datoz.</p>

mungia
OKINdegia



Algortan badaukagu artisauen ogia izen eta jatorriz da “ogi mungia”.

Goizero lortzen dogu obispoen guleria probatu bada edo ez dan benetako egia.

KASUNE 28 - T: 94 430 10 76
ALGORTA



KEKO

denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

Ezker eskuin

1. Auzokoa, aldamenekoa. 2. Olariak. 3. Lapurdiko herria. Burdinbidea. 4. Hiri barruko errepideko tren. Ogi, hitz elkarketan. 5. Eite, itxura. Azkenekoa eta lehenengoa. Sufrea. 6. Ipar, zirikatua. 7. Oxigenoa. Metal estimatua. 8. Urrea. Zaldiak mugiarazteko interjekzioa. Bostehun. 9. Ebazpen. Gizon izena. 10. Intsektu nazkagarria. Gipuzkoako herria.

Goitik behera

1. Esku. Ukatzeko. 2. Gaueko argi. Batrazio ezaguna. 3. Zaraitzuko. 4. Nafarroako Bortzietako herria. Iridioa. 5. Berrogeita hamaika. Bigira, gualdi. Iodoa. 6. Igarle. Mapa. 7. Laudorio, gorespen. 8. Momentu, lipar. Musika-partituren euskarria. 9. Ipotx, ñaño. Arabako alderdi politikoa. Musika nota. 10. Hutsa, desegokitasuna. Joaki da.

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1										
2										
3										
4										
5										
6										
7										
8										
9										
10										

Taula honek hamaika beltzune ditu

Soluzioak

V	A	I	V	A	R	H	O	Z		
O	L	E	T	I	P	A	I	E	P	
D	R	I	A	R	A	U				
A	R	A	R	A	L	I	Z	O		
V	A	U	A	T	A	K	I	Z	I	
S		Z	E	I	G	I	T	E		
O		A	B	I	N	T	R	A	N	
N		E	T	R	A	S	A	R	A	
K		N	O	Z	I	G	O	L	A	
N		U	G	I	L	A	Z	I	B	



ARGAZKIA, CAÑADA

Bittor Egurrola

Madre del Divino Pastor ikastetxea, 1945-46

Kongregazio honen fundatzailea Jose Tous irakasle kataluniarra izan zen (1850ean). Horregatik, 1897an Euskal Herrira (Bilbora) lehenengoz etorritako mojak kataluniarrak ziren. Zazpi urtez Bilbo eta Algorta artean ibili ondoren, 1940an Areetan kokatzea erabaki zuten eta... gaur arte. Oraintsu amaitu da (maiatzaren 14an) Erromoko Erakusketa Aretan, ikastetxe honi buruzko argazkien eta oroigarrien erakusketa, ikastetxearen 100. urteurrena (1904-5, 2004-5) dela eta. Honek oso argi adierazten du Areetako azken mendeko historiaren zati garrantzitsu bat ikastetxe honi lotzen zaiola. Izan ere, urte askoan Areetako ikastetxe bakarra izan zen hau.

Areetako Cañada argazkilaria entzutetsuak ateratako ikasturte amaierako argazkian, 13-14 urteko 20 neska ditugu, diploma eskuetan, soineko urdinez, eskularri zuriz eta almidoitutako iduneko zuriz jantzirik. Azpimarratzekoa da haugarriko hiru (Teresa Gallegos eta Loli Gallegos ahizpak, eta Jesusa Aurrekoetxea) Kongregazio honetako erlijiosu bihurtu zirela eta gaur egun ere zeregin horretan jarraitzen dutela. m

Lehenengo lerroa: Edurne Uribe, Garbiñe Uriarte, M^a Angeles Fraile, M^a Luisa Larrazabal, Jesusa Aurrekoetxea, Begoña Gonzalez, Natividad Arzubiaga, Felisa Llantada.

Bigarren lerroa: Mari Carmen Raluy, Mari Carmen Madariaga, Ana M^a Escudero, Pilar Gonzalez, Edurne Mugika, M^a Victoria Bilbao (G.B.), Teresa Gallegos, M^a Dolores Onzain.

Hirugarren lerroan: Agurtzane Musatadi, Begoña Onzain, M^a Pilar Baños, Loli Gallegos.

asmatu eta irabazi > bi lagunentzako bazkaria



Nor da?

- Bere herrialdeko hizkuntzaren defenditzaile sutsua.
- Monarkiazaleen jomugan egoten da beti.
- Euskal Herriaren laguna.

> Aurrekoaren erantzuna: Miren Azkarate

> Irabazlea: **Jon Deba**

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako menu berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo uk@aldizkaria.biz / faxa: 94 491 58 31

Zuri Haitz Jatetxe begetarianoa



Sertutxa 4, Sopela
Telf. erreserbak: 645 732 991



gure posta elektronikoa

uk@aldizkaria.biz

UK Uribe Kostako Aldizkaria

VIRGINIA IMAZ > pailazoa eta kontalaria

“Nire bizioak bertuteak ere badira”

Testua: **Jon Urresti**



Defini ezazu zeure burua. Norbait amets egiteko gaitasunagaz.

Zein animaliagaz zatoz bat? Tigreagaz. Oso basatizat daukat neure burua.

Zein liburu gustatuko litzaizuke idaztea?

Orain idazten nabilena. *Último regreso a Thule* da bere izenburua. Thule Capitán Truenoren neska-laguna (Sigrid) erregina zen uhartera da. Momentuz, nire haurtzarogaz zerikusia daukaten ipuinak dira. Eleberria izatea espero dut.

Eta zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

Felliniren *La Strada* pelikulan Giulietta Masinak egiten zuena. Klownaren erreferentzia bakarra da niretzat.

Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?

Gandhi. Oso alde mistikoa daukat, eta indarkeria ezan sinesten dut.

Zure jakirik gogokoena.

Debekatuta daukat, baina txokolatearen forma guztiak ditut gustuko.

Oso gozozalea naiz. Nire erreinua postre baten truke!

Aitor dezakezun bizio bat.

Anbiguoak dira, bertuteak ere izan daitezkeelako. Egiazaletasuna, esaterako.

Zer hutsegite ez duzu sekula barkatzen?

Dena barkatzen saiatzen naiz. Zaila zait onartzea, ordea, bidegabekeria eta giza- eskubideen aurkako atentatuak.

Ezin zaitzke bizi...

Familia barik eta sortzeko gogo barik. Sortzeko proiektuak amaitzen zaizkidanean, bizitzeko gogoak amaituko zaizkidala uste dut.

Zer berri gustatuko litzaizuke entzutea albistegi batean?

Bakeak eztanda egin duela munduan.

Ohitura txarren bat... Lo egiten dudanean, oinak edredoitik kanpo ateratzea.

...Eta sineskeriaren bat.

Gurpil bat iraulita ikusi eta istripua gertatuko ete den beldur izan. Maitasunez egindako opariek babesten zaituztela ere sinesten dut.

Zertan gustatuko litzaizuke haragitzea?

Nire semea eta senarrarengandik hurbil egoten utziko didan zerbaitetan.

Zein da gehien errepikatzen zaizun ametsa?

Kontxako badiaren gainetik hegan egiten dudala.

Noiz egin zenuen negar azkeneko aldiz?

Atzo bertan. Lagun batek zerbait polita esan zuenean, hunkitu egin nintzen. ○

LABURREAN— Quevedoren baimenagaz: “Bazen emakume bat sudur gorri bati itsatsita”. Oihulari Klown antzerki taldeko Virginia Imazek (Donostia, 1962) 18 urte daroaz mundua sudur gorri batezaz ikusten, “gizaki guztien bizitzaren hasieran legez ikusten ditut gauzak, lainotasunez”. Antzezten duen pertsonaia Pauxa deitzen da, eta berari esker bere buruaz barre egiten ikasi du. Horrela definitu digu Pauxagaz daukan harremana: “Oso eskizofrenia gozosa da. Gorputz bera, ahots bera eta emozio berberak erabiltzen ditugu, baina benetako bizitzan modu desberdinean egiten diegu aurre egoerei. Esaterako, ni ez naiz Pauxa bezain traketsa”. Virginiak hiru urte eman zituen Cirque du Soleil ospetsuan: “Maila pertsonalean eta profesionalean oso aberasgarria izan zen. Pribilegioa da aisialdiaren multinazional horretan behar egitea. Giza eta ekonomia baliabideak dauzka kalitatezko ekoizpenak egiteko; horrela, artistek euren gaitasunak gara ditzakete”. Bat-batekotasuna maite du, pailazoak bere zoramena ateratzen uzten ei dio, eta aitortu digunez, jendaurrean emozioak adieraztea bitxikeria eta adore-ekintza da.

EUSKARAREN ERABILERA PLANA
euskara@getxo.net



Bai, esano

